


ttipi ttapa

2006ko irailaren 7a • XXVI. urtea

429



Leitzako Atekabeltza gaztetxea lanean

03

«Gazteek sortu eta gestionatutako lekua» izateko asmoz, uztailearen 29an inauguratu zen Leitzako Atekabeltza gaztetxea. Urteko egitaraua prestatzen ari dira.



Laxoan berriz ere Doneztebe garaile

32

Doneztebeko laxoa taldeak bere hamaseigarren txapela jantzi du. Abuztuaren 6an Oitzen jokatu zen finalean, 9-2 gailendu zitzaion Irurita B taldeari.

04

NAFARRICAKO ERRESUMAREN AZKEN GOTORLEKUAN

Amaiurko gazteluaren aztarnen bila



Ongi eginak diren gauzak gustoko ditugu

Laguntza eman nahi dugu:

- Lanpostuak sortuz
- Dauden elkarteak lagunduz
- Industriaidea sortzen lagunduz
- Industria ekimenak bultzatuz
- Kirola babestuz
- Zuen iritziaik entzunez



BERAKO UDAL MUSIKA ESKOLA

hurbildu musikaren mundura!



Arreba eta
MAGNAren laguntzarekin

Arreba eta
MAGNAren laguntzarekin

BERAKO UDAL MUSIKA ESKOLA
Berako Udala, Kalea 10, 48100
Tel. 945 40 11 11

DATUAK...

- **Duela hiru urte arte Guardia Zibilak erabili zuen etxea iaz okupatu eta urtebeteko lanaren ondotik, uztailaren 29an ireki zuten Leitzako Ateka Beltza Gaztetxea.**
- **Urte osoko egitaraua prestatzen ari dira. Gazteen buruan txapelketa ezberdinak egitea, Sahararen inguruko jardunaldiak, etorkinekin bildu eta beste ekitaldi batzuk egitea dago.**
- **Gazteentzako alternatiba berria sortu eta herriari zerbitzua eman nahi diote.**



Saioa IRAOLA-Ibon AZPIROZ *Leitzako Ateka Beltza Gaztetxeoak*

ARGAZKIA: ARKAITZ MINDEGIA

ELKARRIZKETA
ELKARRIZKETA

«Gazteok sortu eta gestionatutako lekua izan nahi dugu Ateka Beltzan»

Aitor AROTZENA

**Uztailaren azken aste hondarrean inauguratu zuten Leitzako Ateka Beltza Gaztetxea. Nolako harre-
ra izan zuten?**

Harrera oso ona izan zen. Plazatik Ateka Beltzako atarira kalejira egin zen, txistulari eta dantzariekin; aurrekoa dantzatu zuen Ateka Beltzako kide batek, irekiera egin zen, bazkarian 70-80 lagun bildu ginen, Goizuetako Gaztetxeoak ere etorri ziren, lotsa askatzeko jokoak egin ziren, trikipoteoa, luntxa, argazki erakusketa, Ateka Beltzak izan duen eboluzioa eta auzolanean egin den lan handia ikusteko, kontzertuak...

Inaugurazioaren aurretik lana gogotik egin beharko zuten...

Auzolana hasi zen joan den urteko uztailaren 22an. Dena garbitu behar izan genuen eta lehen bi pisuak pintatu genituen. Gaztetxea lehenengo solairua da eta hor, konponketak egiten hasi aurretik, aparejadore batekin egon ginen. Bere ustez, etxea ez zegoen udaletxeak uste zuen bezain egoera txarrean, baina ekitaldi bereziren bat egitekotan lehenengo so-

«Lokalak modan daude eta horrek individualismoa bultzatzen du. Horren aurrean, bildu eta gazte mugimendua sustatu nahi dugu»

lairuan egin beharko zen eta hori moldatu behar zen. Elektrizitatea eta ura jarri genuen, kableak moztuak zeudelako. Gero, lehenengo solairuko paretak bota genituen eta habe berri bat sartu genuen. Obratan eta badakien jendea aritu da auzolanean. Tarima zaharra kendu eta zola berria jarri genuen eta sabaiko egurrak bistan utzi genituen. Urte osoa joan zaigu, larunbatero 9etan auzolanerako 20 bat lagun biltzen ginen. Teilatua ere konpondu genuen, itoxurak moldatzeko. **Lan horiek guziak egiteko dirulaguntzaren bat izan duzue?**

Pestetan barra ireki genuen Gaztetxean eta ekitaldiak egin ziren. Hor bildutako dirua materiala ordaintzeko erabiliiko dugu. Oso harrera ona izan du, harrituak gelditu gara: herriko gazte guziak etorri dira kontzertuetara, baina bere garaian gaztetxea eskatu eta gaur egun heldua den jendea ere

hurbildu da laguntza eskaintzera.

Gaztetxearen barrenean nola antolatu zarete?

Talde ezberdinak ditugu: komunikazio taldea, egitarauaz arduratzen den taldea eta auzolanerako taldea.

Duela urtebete okupazioaren bidea aukeratu zutenen. Zergatik?

Udaletxean hainbat bilera egin ondotik, ikusten zen ez zutela biderik ematen guk hemen toki bat izateko. Orduan okupatzea erabaki genuen eta Leitzako eragile ezberdinekin bilera egin genuen, etxe honek lau solairu dituelako eta gazteen txokoaz gain, Gizarte Zentroa ere egin daitekeelako. Etxea erabiltzeko asmoa zutenekin bi talde egin ziren: epe motzekoa, auzolanaz eta premiazko gauzetaz arduratu dena, eta epe luzekoa, hau da, etorkizunean Ateka Beltzan zer egin daitekeen aztertzekeo batzordea. **Zein da Ateka Beltza gaztetxearen helburu nagusia?**

Gazteok sortu eta eraikitako leku bat izatea eta autogestioaz eramatea da. Gaur egun gazteoi denbora libreka diseinatu egiten zaigu eta guk, gure alternatiba sortu nahi genuen.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Landare eta sasiak garbitu eta zortzi metro altuerako harresiak topatu dituzte Aranzadiko ikerlariek.

NAFARROAKO ERRESUMAREN AZKEN GOTORLEKUAN

Amaiurko gazteluaren aztarnak bildu ditu Aranzadi Zientzia Elkarteak

Dagoeneko kasik borts mendeko pasa dira Amaiurko gaztelua Gaztelako Fernando Katolikoaren tropen eskura erori zela. Halere, geroztik eta joan den abuztuaren lehena arte inoiz ez da bertan azterketa edo indusketarik egin. Hori dela eta Baztango Udalak bultzaturik, Aranzadi zientzia elkarteak eta UEU horretan aritu dira abuztuaren lehen bi asteetan. Ekialdera eta mendebaldera ematen dituzten harresiak garbitu dituzte eta gaineko aldean 30 metro luzera eta 2 zabalera dituen zuloa ideki, garai horietan zer gertatu zen jakiten lagunduko duten aurkikuntzak egiteko. Lan horren burutzeko, hamaborts bat lagun aritu dira, Juantxo Agirre Mauleon Aranzadiko kidearen zuzendaritzapean.

Xan HARRIAGUE

Orain arte Amaiurko gazteluan indusketarik ez bada egin ere, Nafarroako erresumako historiaren leku garrantzitsua da. Errege katolikoek 1512an Nafarroa Garaiaaren aurka abiatutako erasoan nafarrek eutsi zu-

ten azken gotorlekua izan zen, erresumaren independentziaren aldeko gudaren azken lekukoa. Noaingo baitaila galdu ondotik, Nafarroako buruzagiak, Amaiurrera errefuxiatu ziren. Zoritxarrez, azkenean erasoan aitzinean amore eman behar izan zuten

eta gaztelua, Errege Katolikoaren eskuetan erori zen. Urte batzuk beranduago, nafarren independentziaren aldeko asmoak uxatzeko, bertze hainbat gaztelu bezala, Amaiurkoa ere suntsitu zuten.

Berrikitan egin dituzten indusketek, garai horretan zer gertatu zen jakiteko zertan lagunduko duten azaldu digu Juantxo Agirre Mauleonek: «Azken batean, erakundeek, giza eragileek, elkarteek eta alderdiek hura nola gertatu zen eta gaztelua nolakoa zen jakin nahi dute. Gauregungo metodologia zientifikoak, arkeologiaren bitartez, aunitz lortuko ditu, guzi horiei erantzunak emateko eta gure iragan hobeki ezagutzeko. Hemen azaltzen diren datuak nahi duen guziari zabalduko dio Aranzadik». Izan ere, Nafarroako historian garrantzi handia izan zuen Amaiurko gazteluak: «Euskaldunontzat gaztelu hau oso adibi-

Juantxo AGIRRE MAULEON *Aranzadi Zientzia Elkarte*



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Zer da Aranzadi zientzia elkarte eta nolako lanak egiten dituzue?

Aranzadi erakunde zientifikoa da, arkeologia arloan Euskal Herrian dugun zaharrena. 1.500 bazkide ditugu, bi egoitza nagusi Donostian eta arkeologia, ingurumena, espeleologia, mikologia... departamentu ezberdinak ditu. Gure helburua Euskal Herriko natur eta kultur ondarea ikertzea eta ezagutaraztea da.

Noiz sortu zen Aranzadi elkarte?

Sortu zen 1947an, gerra ostean. Euskal Herrian ikerkuntza zientifikoa erabat desagertua zegoen, basamor-

tu bat zen. Garai hartan bildu ziren zientziazale batzuk, nolabaitere gure ondarea zaintzeko eta Telesforo de Aranzadi, Jose Migel Barandiaranen maisu izandakoaren jarraipena bideratzeko.

Orain arte zein dira eraman dituzuen lanik garrantzitsuenak?

Besteak beste, Paleolito garaiko hainbat kobazuloren zainketa, Ekain, Aitzbitarte, Labeko Koba... Euskal Herrian aurkitzen diren harri landu zaharrenak, Zestoako Iri-kaitzen... kostaldean hainbat hegazti eta animaliren azterketak egin ditugu; Euskal Herriko landaretza eta

basoen ikerketa eta kartografia egiten dugu; Gerra Zibileko desagertuen hilobiak eta gorpuak bilatzen ditugu... Ekimen oso ugariak eta oso ezberdinak.

Zein helburu ditu ikerketa honek?

Batez ere Baztango Udalak nahi zuena, hemengo gazteluen aztarnak aztertzea, ea zenbat gelditzen ziren, zer neurrikoak, ea posible zen Baztanen dagoen gaztelu ospetsuena berreskuratzea eta jendeari irekitzea. Azken batean, gaztelu honen oroimena galdua zegoen sasi artean. Helburu nagusia hori zen, jakitea monumentuaren lur azpian zer dagoen. Azken batean, besteak bezalako mendixka bat zen, bere sasi eta zuhaixkekin, baina guztiok dakigun bezala, gaztelu mendia da.

“Gazteluaren oroimena galdua zegoen sasi artean eta hori berreskuratu dugu”

de inportantea da. Gaztelako konkistari aurre egiteko azkeneko gu-neak hemen egon ziren, Nafarroako erresumaren askatasunaren azken hatsa hemen eman zen. 1521etik 1522ra berrehun bat nafarrek aurre egin zieten Gaztelako tropei eta Nafarroako erresumaren askatasuna aldarrikatu zuten».

«BAKARRIK 50 METRO KOADRO AZTERTU DITUGU»

Kontent daude Aranzadikoak bi aste hauetan lortutako emaitzarekin: «Hemen egindako lanak gure ezagupena handitu du, helburu zientifikoa bete dira, baina batez ere Amaiurko herriaren eta hemengo erakundearen harrera azpimarratuko nuke. Hau hasiera besterik ez da, 15 egun eman ditugu hemen, baina lau hilabetez hemengo materiala ikertuko dugu. Datorren urtean beste indusketa kanpaina bat egin beharko dugu, gaztelua oso handia baita eta aztertu duguna, 50 metro koadro besterik ez dira».

Bi asteotan gauza gutti aurkitu dituzte, hala nola animalia hezurak, txanponak, bala bat, zeramika pusak, labanak, iltzeak... Ez dirudi ondorio aunitz aterako dutenik hortik, baina Juantxo Agirre Mauleonek erran digunez, aurkitu dituztenak eta harresiak aztertu ondotik, gauza gehiago jakinen dute, batez ere gazteluaren egiturari buruz.

BILDUTAKO AZTARNAK LAU HILABETEZ IKERTUKO DITUZTE



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Amaiurko gazteluan bildutako aztarnak aztertu beharko dira orain.

Indusketa lana zehatza izaten da, eta antolakuntza beharrezkoa da. Amaiurko indusketa praktikoan nola eraman duten azaldu digu Aranzadiko kideak. «Monumentoaren ondoan dagoen goiko plataforman 30 metro luze eta 2 zabalerako zuloa ireki dugu eta pixkanaka, lur geruza guziak altxatu ditugu, kontuarekin eta eskuz, azpian dauden egiturak eta aztarnak ikusi ahal izateko. Paretak oso axalean agertu zaizkigu, ia-ia belarraren azpian, 10-20 zentimetrora. Azpian dauden pare-

tak garbitu eta plano batean kokatu ditugu. Gero, azaltzen diren aztarna guziak, garai hartako hemengo bizilagunek utzitakoak, hainbat tresna, labanak, aizkoraren bat, eraikuntzako iltzeak, txanpon batzuk... biltzen ditugu, gero aztertuko dira eta errestituratu dira. Amaiureat Urdazubi aldeko mendi hegalean garbiketak egin dira eta gure harridurarako 8 metro altuerako paretak agertu dira, batzutan 20 metro luzeak ere».

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

www.ttipi.net

info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidente: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Berriemaileak: Esteban Arotzena,

Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio

Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Do-

losor, Margari Etxenike, Koro Irazoki,

Juan Carlos Mortalena, Laetitia, San-

drine eta Krispin, Angela eta Xamo,

Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Jo-

seba Olgarai, Nerea Mixeltorena,

Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ain-

hoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Ami-

go, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Bera, Leit-

za, Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpere-

ko udalak, Zugarramurdiko Akelarre

elkatea, Bortzirietako Euskara Man-

komunitatea, Malerrekako Zerbitzu

Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria 30 e

Espainia 30 e

Sara (edantegia-okindegia) 40

e

Ipar Euskal Herria 50

e

Europa 50 e

Amerika 108

e

Baztan, Urdazubi, Malerrek

eta Leitza 25 e



**Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du**



**Aldizkari honek Eusko
Jauriaritzako Kultura Sailaren
laguntza jaso du**

● IRAKURLEAK MINTZO ●

Elizondoko bestetan zenbait jokabide lotsagarri

Elizondoko Santiotan azken urte hauetan izandako zenbait jokabide arras gaizki iduritu zaizkit. Aurtengo bestetako egun nagusian, Miguel Sanz, hor zegoen Nork konbidatu zuen? Zertaz? Zertarako?

Denok dakigu, Nafarroan, euskara, euskal kultura, euskal izaeraren kontra dauden guztien buru dela Miguelito. Gurea den altxorrik preziatuena, gure hizkuntza, ebatsi nahi diguna eta baztandar euskaldunen etsai amorratuena, orain Elizondora hurbiltzen da boto beharretan dabilenean, (orain duen Lehendakaritzaz Ezker Abertzaleari botoak ebatsita eskuratu zuen), eta horretarako Elizondoko alka-teak eta baita ere EA eta UPN alderdiek oho-rezko lekua eskaintzen diote.

Azeria, zenbait lumez mozorrotua oilategiko nagusia. Hauteskundek irabaziko balitu lan-tegi guziak Erribera al-dera eramango litzuke, eta euskaldun eremua baztertua izanen litzateke berriz ere.

Hau ere ikusi egin behar!

Orain dela urte pare bat edo hiru, Elizondoko suziria botatzera konbidatu zuten Nafarroako Justizia Auzitegi Go-reneko Zuzendaria, J. M. Fernández. Gizon honek zerbait izanen zuen ikusteko Baztanekin? Bai, zoritxarrez! Gizon hori izan zen hiru baztandarrei 26 urteko kart-zela zigorra ezarri zie-

na inolako frogarik ga-be. Denok dakigu ebaz-pen edo sententzia har-tan astakeri ederrak erratan zirela. Frogarik ez, baina 26 urte giltza-pean. Euskaldunak zi-relako jipoitu zituzten. Prozesu hartan tortura ere erabili zuten hemen denok argi dakigun be-zala.

Eta hiru baztandar horiek, eta beraiekin ba-tera baztandar guztiek jipoitu zituen epaileeta-ko bat konbidatu bere-zia Elizondoko Santio-tan. Egiatz lotsagarri. Euskaldun eta baztan-darrak iraintzen gaituz-tenak, Elizondoko agin-tariek omentzen dituz-te.

Datorren urterako proposamen bategingo nuke. Konbida dezate-la Albako Kondesa, be-re antzinako bat izan baitzen Nafarroa kon-kistatu zuena Kastilla-ren morroi bihurtzeko, hainbertze nafar eta baz-tandar hil zituena eta Amaiurko gaztelua sunt-sitzea agindu zuena.

Non dago duintasuna?

**Patxi URRUTIA
(AMAIUR).**

Ainhoan euskaraz

Urtero bezala, larun-batean, Atsulai kultur eta kirol elkarteak Ainhoa-ko 12 Orduak izeneko iraupen luzeko ibilaldia antolatu zuen. Lapurdi-ko herri polit honetan

Euskal Herriko Iparralde zein Hegoaldeko mendizale ugari bat egin genuen kilometro asko ibiltzeko asmoz. Eguraldi lagun, giro ede-rrean, antolatzaileek on-gi baino hobeki bete zu-ten bere lana, hau da, bidea txukun seinaliza-tu, mendizaleen pasea kontrolatu, janaz eta edariz ongi hornitu...

Baina nire ustez gai batean herrenka ibili ziren. Izan ere, euskararen presentzia eskasa baino eskasagoa izan zen. Horren lekuko, mapak eta ibilbideen inguru-ko informazio orria es-painolez eta frantsesez idatzia egotea. Hain zu-zen, gure berezko hiz-kuntzaz arrasto gutxi eta mugaz bi aldeetan eza-riak ditugunak jaun eta jabe, non eta Ainhoan.

Martxa hauek natu-rra, kirola eta kultura uz-tartzeaz gain euskaldu-non bilgune izaten dira. Era berean, parada ede-rrak normaltasun osoz euskaraz aritzeko. Hor-taz, hona hemen nire nahia, mendi jarduera hauetan zein bestee-tan, euskararekin leial eta ausardiz joka deza-gun eta jar diezaiogun merezi duen mailan, alegia, euskaldunontzat le-hendabizikoan.

Esker anitz Atsulai, Ainhoa, eta heldu den urtera arte.

**Juanma HERNANDEZ
Iruñea, 2006ko
abuztuaren 20a**

Etxalarko Asuaren inguruan

Etxalarko bestak oro-korrean hagitz ongi jo-an dira; dantzak, desa-fioa... ez baziren Asau-ko astakeriak gertatu. Dagoeneko 15 de-nuntzia baditugu mahai gainean, kotxeen pintu-rra lohia eta adarrekin izorratzeagatik.

Ez dakit udalaren aseguruak edo udalak berak ordaindu behar-ko duen... edo herrita-rren baten gainean ero-riko den guztia. Kontua da herriko bestetean 24.000 euro gastatzen ditugula eta astakeria honek 12-18.000 euro-ko kostoa ekarriko dio-la etxalartarrei.


Eskutitza honen bi-tartez nere haserrea agertu nahi dut. Asau egunean berean, ermi-tan mahaiak eta abar bil-du ondoren, Arotzan et-xean agertu behar izan nuen kotxe bat ikustera (azkenean alkateak aur-pegia eman behar bertze batzuegatik).

«Arotzan» etxeko ei barkamenak eskatu nahi diet nere itxurarengatik eta nere doluminak eman. Bertze aldetik, Asauan egon ziren guz-tiei, erreflexiorako 5 mi-nutu eskatuko nizkioke.

Aldaketa sakonak behar dira eta bakoitzak bere buruari begira hain-bat galdera egin behar-ko dizkio. Irailaren 9an bilera bat eginen dugu arratsaldeko 6etan. Bes-tak egiteko gai bagara erantzunkizunak hart-zeko ere bai. Agertu.

**Patziku IRISARRI
Etxalarko alkatea**

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



BERRIA 2006-07-28

«Gu ez gaude jokalaria saltarazteko edo korrika eginarazateko bakarrik. Asko aldatzen ari da prestakuntza fisikoa. Nire erronka litzateke prestatzaile fisikoa bertze entrenatzaile bat izatea. Gu espezialistak gara entrenamenduaren atal batean, baina gure ikuspuntua entrenatzaile batena bezala ere hartzea gustatuko litzaidake. Entrenamendu saioak globalki hartu behar dira».

Joshe VIELA
Osasunako prestatzaile fisikoa. Irurita.
BERRIA 2006-07-28

«Niri aunitz gustatzen zait beroa. 40 gradutan egonda ere, gustora nago. Eta udazkena ailegatzen denean, dena pixko bat tristeagoa da: arropa gehiago, kanean hotza pasatu... etxean gehiago egon behar duzu. Betidanik beroa gehiago gustatu zait hotza baino. Udarari probetxu handia ateratzen diot. Halere, gure opor-hilabetea urria da, orduan gaude lasaiago eta horri ere probetxua ateratzen saiatzen naiz.».

Jon BRU
Berako txirindularia
GARA 2006-08-20

• 11 GALDERA LABUR •

Elizondon sortu, Elbeten bizi... hiriburutik auzora gana?

Auzora ez, Elbete ere herria da. Gustora gainera!

Elbeteko bestak edo Baztandarren Biltzarra?

Bakoitzak badu berea, baina Baztandarren Biltzarrekin gelditzen naiz.

Elbeteko posadako sukaldari... bestak ongi pasatzeko otordua?

Lagun onak mahaian eserita, giroa norberak sortzen du. Berdin zait arraultze prexituak magrarekin janda ere!

Eta sukaldeak uzten al du besta egiteko denborarik?

Guti edo batere ez.

Sakela hutsarekin ezin omen da bestarik egin... eta sabela hutsarekin?

Gaur egun ez, kanpoan bazabiltza, bazkaria, afaia eta edaria ordaindu behar dituzu. Ahal dela, sakela eta sabela bete behar dira.

Ostatuan txaranga jarria edo ostatu atarian txaranga?

Biak bere momentuan. Txaranga musika gustatzen zait, baina musika ostatuan ere behar da.

Bestondoa pasatzeko menua?

Esparragoak erraten dute, baina bestondoa lehenbailehen pasatzea da jateko gauzarik onena.

BKT eskubaloiko presidentea zara... aurtengo fitxaketekin Ohorezko Mailara?

Hala espero dugu, entrenatzaileak

bai bederen. Izugarria litzateke! **Munduko atezainik onena izandakoa ekarri duzue... Arerioak beldurtzeko taktika?**


Atezaina behar genuen, ona izan da eta oraindik sasoian dago. Bertze taldeak beldurtzen badira, hobe!

Etxekoekin ezin al da Lehen Mailan taldea mantendu?

Maila ona dugu, baina postu guzietarako ez da jende nahikorik, gure mugak baditugu. Herri taila eta kategoria handia da.

Ligako partidak Kanarietan,artzelotan... presidentak ere probetxen al du turismoa egiteko?

Ojala! Baina ez, ez dut aukerarik izan. Nere lanarekin, asteburuetan ateratzea ez da posible eta partidak as-



Belen URRUTIA

Elbeteko Ostatu sukaldaria eta BKTko presidentea

Собоко
Lore eta landareak
Frain auzoa · LESAKA
Tfnoa: 948 637826

Jose I. Gonzalez Enguita

Pinturas Pikabea Molinero

PINTURAK

Emaitzak · Bermiak · Lasoroa urpintura · Margo Murguzaldu

TEL: 948 637 826

ABELTZAINZA

Azpiegituretan moldaketa lanak egiteko laguntzak eman ditu Nafarroako Gobernuak

Bideak zolaberritu eta askak, zerrakurak, ur-putzuak eta hesiak eginen dira

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren bitartez, 4,1 milioi euroko dirulaguntza eman du, mendialdeko abeltzaintzarako azpiegituretan moldaketa lanak egiteko 2006garren urte honetan. Laguntza hau, ur-putzuak, askak, zerrakurak, ur-tuboak, hesi kanadiarrak eta bideak egin edo berritze bideratuko da, bertzeak bertze.

Eskualdeko herriei dagokienez, **Arantzak** 166.425 euroko dirulaguntza hartuko du, bideetan zahorra eta hormigoia emateko. Aurkeztutako aurrekontua 277.375 eurokoa zen.

Areson ere, bideetan zahorra, hormigoia eta galipota emateko 71.020 euroko dirulaguntza hartuko dute, 118.368 euroko aurrekontu batetik.

Baztanen, pista hormigoizatze eta ixtegiak eta zerrakurak



ARTXIBOKOA

Iuritako Loizu hiltegian moldaketa lanak egiteko 33.389 euroko dirulaguntza eman du Nafarroako Gobernuak.

egiteko 146.610 euroko dirulaguntza hartuko dute, 415.307 euroko aurrekontutik. Gainera, Loizuko hiltegian moldaketa lanak egiteko 33.389 euroko dirulaguntza izanen dute, 55.650 euroko aurrekontutik.

Beintza-Labaienen,

pista bat hormigoizatze, askak eta bi hesi kanadiar egiteko 97.783 euroko laguntza hartuko dute, 162.972 euroko aurrekontutik.

Beran, aziendentzako hiru ur putzu eta bi hesi kanadiar egiteko, 78.573 euroko laguntza hartuko dute,

130.955 euroko aurrekontutik.

Donamarian, bidean hormigoia emateko 142.902 euroko dirulaguntza jasoko dute, 238.170 euroko aurrekontutik.

Eratsunen, ur-tuboa sartuko dira, askak eginen dira, pista mol-

datuko da eta paretak eginen dira. Horretarako 59.935 euroko dirulaguntza izanen da, 99.891 euroko aurrekontutik.




Igantzin, zortzi bide hormigoiztatu eta bidebaterak txukuntzeko 86.468 euroko dirulaguntza eskuratuko dute, 114.113 euroko aurrekontu batetik.

Oitzen, bide bati hormigoia emateko 147.980 euroko laguntza hartuko dute, 246.634 euroko aurrekontu batetik.

Saldiasco bide batean hormigoia emanen da 190 metrotan. Horretarako, 15.037 euroko laguntza eskuratuko dute, 25.062 euroko aurrekontu batetik.

Sunbillako bide batean hormigoia emateko 59.997 euroko laguntza hartuko dute, 99.996 euroko aurrekontutik.

Urrotzen, azkenik, 149.652 euroko laguntza hartuko dute bideetan hormigoia emateko, 249.420 euroko aurre-



BERA

Mukixu haurtzaindegiak irailaren 4an ideki ditu ateak

Sei hezitzaile, bi sukaldari eta bi garbitzaile ariko dira lanean

Amaia eta Ainhoa

Mukixu Udal haurtzaindegiak irailaren 4an ideki ditu ateak eta uztailearen 31 bitartean zabalik izanen da. Goizeko 8:00etatik 16:00ak arte sei hezitzailek hartuko dute haurren ardurua. Hezitzaileez gain bi sukaldari eta bi garbitzaile ariko dira lanean. Momentuz, Bortzrietako 50 haur inguruk izena eman dute eta lau taldetan banatuko dituzte: 0-1 urteko talde bat, 1-2 urteko berte bat eta 2-3 urteko bitalde. Haur batzuk itxaron-zerrendan daude, beraz, ikasurte honetan hasteko onartua izan den norbaitek baja ematean bakarrik sartzeko aukera izanen lukete. Onartuak izan diren haurrak, le-

hendabiziko bi astetan lau orduko egonaldiak egiten dituzte hezitzaileak ezagutu eta egokitzeko. Gero, zazpi ordutan egoteko aukera izanen dute eta jangela zerbitzua ere eskainiko da.

7. Nazioarteko Bertze Musiken Jaialdia

Azken 6 urteotan ospatu den ERTZ nazioarteko bertze musiken jaialdiak, aurten bere ohiko data aldatu du. Ertz Arte Guneak eta Berako Kultur Batzordeak antolatutako jaialdia, orain arte ekainaren hasieran egiten zen bezala, 7. edizioa irailaren 16 eta 17an ospatuko da. Irailaren 16an, larunbatean,



UTZITAKO ARGAZKIA

Txarandaka taldeko Jabier Etxeberria garaile Irurozkin jokaturako Enduro proban

Txarandaka taldeko moto gidariek emaitza ederrak lortu zituzten Irurozkin burututako Nafarroako Enduro txapelketako proban. 4 denborako motorrekin, Irunen sortu eta Beran bizi den Jabier Etxeberriak lehendabiziko postua eskuratu zuen. Xabi Etxegarai lesakarra bigarren izan zen, 2 denborako motorrekin. Nafarroako txapelketarako baliagarria den hurrengo proba urriko bigarren asteburuan izanen dute Aibarren.

arratsaldeko 20:00etan Phill Niblock & Thomas Ankersmit, Norbert Möslang, Bizarra, Oiar Etxeberria, Enrike Hurtado, Thor Magnusson & Runar Magnusson eta Gabriel Paiuken saioak ikusteko aukera izanen da. Igandean, irailaren 17an, aldiz, arratsaldeko 19:00etatik aitzinera, Borrokak Maite Arroitauregirekin batera eta Llorenç Barberrek beiraie ikuskizuna eskainiko dute. Jaialdiren

nahiz artisten inguruko informazio gehiago nahi izanez gero begiratu www.ertza.net/orrialdea.



Illekuetako bestak

Irailaren 16 eta 17an ospatuko dira 2006ko Illekuetako bestak. Aipatzekoa da, inoiz baino ekitaldi guttiago antolatu dela egun haueetan ospatzeko. Irailaren 16an, larunbatean, haur jokoak izanen dira arratsaldeko 17:00etan eta

irailaren 17an, igandean, auzo meza izanen da 11:00etan.

Kiroldegian izen emateko epea

Toki Ona kiroldegian urrian hasiko da ikasurte berria baina izena emateko epea laster zabalduko da. Irailaren 15tik 22ra kirola egiteko asmoa daukan guztiak izena emateko aukera izanen du eta horretarako kiroldegira hurbildu edo 948630215 te-



TOKI ONA BERA
Udal kiroldegia

Informazioa: 948630215

LESACA

Euskara Batzordeak prestatutako Kultur Astea ekitaldiz betea dator

Bertzalde, irailaren 16an Trenbidearen Besta ospatuko da

Aitor AROTZENA

Kultur Astearen barrenean hainbat ekitaldi antolatu ditu Euskara Batzordeak, Udalaren laguntzaz. Honela, irailaren 13an, asteazkenean, «Trikitixa, arbelezkotik mp3-ra» solasaldia eskainiko dute Mikel Markez eta Joseba Tapiak, 19.30ean Herriko Etxeko pleno aretoan. Irailaren 15ean, ortziral arratseko 22.30ean, Jone-zen kontzertua izanen da Onin erreka-aren gainean. Irailaren 17an, igandean, Pantxo Telleria eta Mikel Martinezen eskutik, «Larru hai-zetara» antzeslana ikusgai izanen da Kasinon, 19.00etan. Irailaren 20an, asteazkena, Kulkitaldearekin herri kirolekin zerikusia duten joku tradizioaletan jostatzeko aukera izanen dute hurrek, 17.00etatik aitzinera Tantirumairu ikastolako patioan. Irailaren 21ean, Afrikako ipuinak kontatuko ditu Miren Camisonek

17:00etan liburutegian. Egun berean, «Riomundo» liburua aurkeztuko du Jon Maiak 20:00etan

pleno aretoan. Kultur Astea akautzeko, irailaren 22an, «Arrotz begi» izeneko bertso-trama iza-

nen da euskaltegian 20:00etan, Iñigo Mantzidor «Mantxi» eta Oihana Bartraren eskutik.

Bittiriako bestak asteburuan ospatuko dira

Harrizulatazaileen erakustaldia eta auzo bazkaria egingen dira larunbatean

A.A.

Aste hondar honetan, irailaren 8tik 10era ospatuko dira Bittiria auzoko bestak. Ortziral arratseko 20:00etan, txupinazoa bota ondotik kalejira izanen da trikitilariarekin. Iaz bezala, patata-tortilla lehiaketa egingen da eta gero, afari-berendua izanen da. Horretarako kupela ere jarriko da Bittiriko plazan, txotxetik sagardoa edan ahal izateko. Gaez, rock kontzertua izanen da eta ondotik, Iñigo musika jartzaileak. Larunbat goizeko

10:00etan diana izanen da txistulariekin. Gero, barrenatzaile edo harrizulatazaileen erakustaldia izanen da. Azken urteetan goitibera txapelketa egin da bestetan, baina aurten ez da halakorik izanen. 14:00etan auzo-bazkaria izanen da, Mañukorta, Etxabe eta Jon Maia bertsolariarekin. Arratsean dantza egiteko modua izanen da Izotz taldearekin. Egun osoan, Betti-Alai txaranga arituko da karrikak.

Igande goizean haur jokoak egingen dira.



ARTXIBOKOA

Txistularien dianarekin hasiko dira larunbateko ekitaldiak.

17:30etan, Maite Franco ipuin kontalaria eta

18:30ean trikitixa jaialdia izanen dira.

FLASH

Trenbidearen Besta

Kotxerik Gabeko Astearen barrenean, irailaren 16an, Trenbidearen besta antolatu du Bertizko Partzuergo Turistikoa 16:30etik aitzinera trenbidean. Hurrengo astean, irailaren 25etik 30era, mugikortasunaren inguruko ekitaldi ezberdinak ere egingen dira.

Lesaka: harria, burdina eta zura

Irailaren 8tik 30era «Lesaka: harria, burdina eta zura» erakusketa ikusgai izanen da Betti Gazten, 18:30etik 20:30era eta igandetan 12:00etatik 14:00etara. Kultur Batzordeak antolatu du erakusketa hau.

TALLERES BERRIZAUN
 Gasoila etxera eramaten dugu
 Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

ARTXIBOKOA
 Bittiriako bestak
 8tik 10era

ARTXIBOKOA
 Bittiriako bestak
 8tik 10era

ARTXIBOKOA
 Bittiriako bestak
 8tik 10era

ARTXIBOKOA
 Bittiriako bestak
 8tik 10era

BORTZIRIAK

Etorkinen errealitatea ezagutzeko jardunaldiak antolatu dituzte

Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak eta Euskara Mankomunitateak prestatuak

tipi-ttapa

Etorkinen errealitatera hurbiltzeko helburuarekin, "Mundua Bortzirietan" izeneko jardunaldiak antolatu dituzte Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Euskara Mankomunitateak.

Berako Kultur Etxean hainbat solasaldi egingen dira, guziak arratsoko 20:00etan. Irailaren 18an, astelehena, "Etorkinen egoera Euskal Herrian" hitzaldia es-

kainiko du gazteleraz Agustin Unzurrunzagak, SOS Arrazakeria Gipuzkoako kideak. Irailaren 20an, asteazkena, "Euskara eta etorkinen hizkuntza integrazioa" hizpide izanen du gazteleraz Mario Zapatak.

Irailaren 25ean, astelehena, "Inmigrazio politika berri baterako proposamena" egingen du Castillo Suarez, Sakanako Mankomunitateko euskara teknikariak.

Irailaren 27an, asteazkena, mahaingurua izanen da jardunaldiak bukatzeko.

DOKUMENTALA ETA LIBURU AURKEZPENA

Solasaldiekin batera, bertzelako ekitaldi osagarriak ere izanen dira jardunaldi hauen barrenean. Irailaren 26an, asteartea, "Sinodejan" dokumentalaren emanaldia eskainiko da Etxalarko Kultur Etxean, 20:00etan. Ondotik,



ARTXIBOKOA

Etorkinen errealitatea ezagutzeko baliagarriak izanen dira jardunaldi hauek. Argazkian, Berako Mugarik Gabe Eguna.

Nafarroako SOS Arrazakeriako kideekin solasaldia izanen da gazteleraz.

Irailaren 21ean, ortzeguna, "Riomundo" li-

buruaren aurkezpena egingen du Jon Maia idazle eta bertsolariak 20:00etan Lesakako Herriko Etxeko batzar aretoan.

LESAKAKO KULTUR EGUNAK

Antolatzen dituzte Euskal Herriko Mankomunitateak
Irailaren 13tik 22ra

Irailaren 13an, asteartea:

Hitzaldia: Trakia, antzokiko antzerki ingurua, Mami Markez eta Joneta Tapa

Irailaren 14an, asteartea:

Hitzaldia: Joni

Irailaren 15an, asteartea:

Antzerki: Larra Haleztegi, Parteko Jentzia eta Mami Markez

Irailaren 16an, asteartea:

Haurrentzako jolaskak: Rika

Irailaren 17an, asteartea:

Irudi kontak: Afrikako ipuinak, musika zantza

Irailaren 18an, astelehena:

Riomundo (hitzaldia) aurkezpena eta ekitaldiak, Jon Maia

Irailaren 19an, astelehena:

Berako (antzerki) Antzerki Begi, Pigo Martizagoiti, Mami Markez eta Oihana Berro



ETXALAR

Zalaparta handia Asau egunean kotxe batzuekin izandako arazoengatik

Gazteek lohiarekin kotxeak hondatu zituztela eta 15 salaketa jarri dira

Joseba eta Nerea

Herrian ez dabil bertze solasik egunotan. Asau egunean, abuztuak 18, ermitatik herri-egiten den kalejira gazte batzuk kalte handiak eragin omen zizkieten zenbait kotxeri. Horixe da behintzat kotxe hauetako 15 gidarik paratutako salaketek erakusten dutena. Adar, harri eta lohiarekin euren ibilgailuak marratu edo arrastoa egin izana salatu dute. 15 denuntzia dira denetara. Batzuk Etxalarren jarriak, bertzeak Altsasun, Olaguen... Guardia Zibila-ren koarteletan paratu dituzte salaketak.

12.000 eta 18.000 euro bitartean eskatzen dituzte kotxeak moldatzeko. Diru-kopuru hagitza handia da, kasik bestak antolatzeak ba-

lio duen bezainbertze. Udaletik adierazi digutenez, hasiera batean, euren egiten dira kargu kalte ordainetaz. Baina besta batzordeak bilerak baterako deialdia egin du larunbaterako, irailak 9. Denentzat dago irekia baina bereziki Asauko partehartzaileak joatea nahi dute Kultur Etxera, 18:00etan, arazoaz solasteko.

Patxiku Irisarri alkateak erran digunez "egonera hagitza larria da. Orain arte inoiz ez zen deus gertatu baina berri ez gertatzeko neurriak hartuko ditugu. Heldu den urtean lohiaren maldak kendu beharko dugu, ermitatik herrira bueltatzeko ibilbidea aldatu, edo bertze zerbaite". Momentuz, aurtengo salaketekin zer egin aztertzen ari dira.



ARGAZKIA: MIGUEL SOLANO

Ederki pasatu zuten gazteek Asau Egunean...

Ortzeguneko batzarrean erabakiko dute egonera honi nola aitzin egin.

Usategietako enkantea

Larunbatean, irailak 9, eginen da aurtengo Usategietako postuen subasta. Eguerdiko hamabietan hasita, 22 postu aterako dituzte enkantean, guztira 32.291 euroko balioarekin. Garestienak lehenengo sarea (2.851 euro), parapetoa (2.747 euro) hirugarren sarea (2.422 euro) eta laugarren sarea (2.259) izanen dira.

Turista parrasta

Etxalar uda partean turistez itoa egoten dela erratea ez da berria. Plaza bazterrak bisitariz beteak ikusten ditugu urtero eta, abuztuaren batez ere, karrikan kot-



UTZITAKO ARGAZKIA

...baina auto jabeen 15 denuntzia jaso dira.

xeak uzteko lekuri ez ez dugu harrautzen. Aurtengoa ez da salbu-espina izan. Landaetxeak eta Etxalarko Benta %100eko okupazioarekin egon dira irail hasiera arte. Beti bezala, kataluniarrak, valentziarrak eta madrildarrak izan dira gehien etorri direnak. Baita Euskal Herriko hainbat lekuta-koak ere. Denera 200

lagunek hartu dute osatu herriko landaetxetan. Begoña Iparragirre, Peruarnea landaetxe-ko arduradunak erran digunez, "jendeak ohitura hartua du etortzeko eta gehienek errepi-katu egiten dute. Gure etxean urte batetik bertzerera hartzen dute. Hilabete aunitz lehenago landaetxe guztiak beteak izaten ditugu".

USOA
 (Logo of the organization)

(Logo of the organization)

PRIM, c.b.
 Biekurtze Zentroa

- Kirol-Fisioterapiak
- Osteopatia
- Masajak
- Taldeko berriraketa-ahazkuntza
- Entzuga eta Geroak-entzuga

Txedia 1, berrak • Tel-Fax: 948 623281 • BERRA,
 1.000m. Par. 61. 400m • Tel-Fax: 948 623281 • BERRA

NATURETREA
 (Logo of the organization)

IPU BIDE
 (Logo of the organization)

ARANTZA

Lau neska-mutiko lehen aldiz eskolan hasiko dira ikasturte honetan

Ortzegun honetan, irailaren 7an abiatuko da 2006-2007 ikasturtea

Nerea ALTZURI

Uda giroa ofizialki akautu ez bada ere, udaldian urtero izaten diren ekintzak errepikatu dira aurten ere: udaleku irekiak, dantza ikastaroak, bestak, barne-tegiak... Batzuek beuren oporrak herritik kanpo pasa dituzte uztailean eta abuztuaren lagun aunitzek ere gure herria aukeratu dute oporleku gisa. Landetxeak, aterpea... beteak egon dira hilabete hauetan. Irailarekin batera, lasaitasuna gailentzen da herrian. Eskolako irakasleek irailaren 1ean ekin zioten ikasturteari. Ortzegun honetan berriz, irailaren 7an, ikasleen txanda izanen da.

Aurten lau hurrek eskolako ibilbidea eza-gutuko dute lehenengo aldiz: Eider Taberna, Idoia Altuna, Aritz Madariaga eta Uxue Alustizak ikasgel eta bertze hainbat elementu eza-gutu eta ikasiko dituzte ikasturte honetatik aitzinera.



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Dantzari eta musikari talde ederra bestetan

A zer dantzari eta musikari (txistulari eta atabalarari) taldea. Urtero errepikatzeko espero dugu. Amabirjin egunean Arantzako dantzak dantzatu zituzten frontoian eta Goiko Karrikan barna, usadio zaharrari jarraituz.

Arantza Rock

Arantzako bestetako herri egitarauaren barne hainbat ekimen egin ziren abuztuaren 14tik 19ra: herri afaria, erakusketa, Arantza Rock jaialdia...

Aurten hamekaga-

ren edizioa egin da rock jaialdiaren ibilbidean. Gazte Asanbladak balarazio ona egin du aurten jaialdiari dagokionez. 80.000 euro inguruko aurrekontua zuen aurten jaialdiak eta gastu horri aurre egi-

teko moduan dira. Buitraker, Sorkun, Himen eta The Solanos taldeek esku hartu dute Arantza Rock jaialdian. Gainera, The Solanos taldeak azkeneko emanaldia eskaini zuen eta herrian barna kalejira

egiten bukatu zuten jaialdiarekin. Ekitaldira iaz baino lagun guttiago hurbildu ziren arren, giro ederra izan zen. Nolanahi ere, ezin aipatu gabe utzi, Igantxiko Bentatik herrira bitarte arratsalde-ilunabar partean hiru kontrol ere pasatu zituztela auto gidariekin.

Xorroxin Irratiaren mintegia

Abuztuaren 5ean, larunbatean, goiz arratsaldean Xorroxin Irratiko lantaldeak irati mintegia egin zuen Aterpean. Hausnarketa edo go-goeta eguna izan zuten irati langileek, iratiaren nondik norakoak aztertuz: programazioa, entzulegoa, arlo teknikoa... Hurrengo ikasturteari indarrez eusteko guziaz antolatze bidea jorratu zuten. Goizeko saioaren ondotik, bazkari goxoa egin zuten eta ondotik, bigarren saialdia izan zuen mintegia.

ARTEKARI TALDEA
ARTERABITZA, EGONOMIA ETA LANORALA

1. Lanpostuaren deskribapena
2. Lanpostuaren erantzukizuna
3. Lanpostuaren erantzukizuna
4. Lanpostuaren erantzukizuna
5. Lanpostuaren erantzukizuna
6. Lanpostuaren erantzukizuna
7. Lanpostuaren erantzukizuna
8. Lanpostuaren erantzukizuna
9. Lanpostuaren erantzukizuna
10. Lanpostuaren erantzukizuna

11. Lanpostuaren erantzukizuna
12. Lanpostuaren erantzukizuna
13. Lanpostuaren erantzukizuna
14. Lanpostuaren erantzukizuna
15. Lanpostuaren erantzukizuna

16. Lanpostuaren erantzukizuna
17. Lanpostuaren erantzukizuna
18. Lanpostuaren erantzukizuna
19. Lanpostuaren erantzukizuna
20. Lanpostuaren erantzukizuna

21. Lanpostuaren erantzukizuna
22. Lanpostuaren erantzukizuna
23. Lanpostuaren erantzukizuna
24. Lanpostuaren erantzukizuna
25. Lanpostuaren erantzukizuna

26. Lanpostuaren erantzukizuna
27. Lanpostuaren erantzukizuna
28. Lanpostuaren erantzukizuna
29. Lanpostuaren erantzukizuna
30. Lanpostuaren erantzukizuna

31. Lanpostuaren erantzukizuna
32. Lanpostuaren erantzukizuna
33. Lanpostuaren erantzukizuna
34. Lanpostuaren erantzukizuna
35. Lanpostuaren erantzukizuna

36. Lanpostuaren erantzukizuna
37. Lanpostuaren erantzukizuna
38. Lanpostuaren erantzukizuna
39. Lanpostuaren erantzukizuna
40. Lanpostuaren erantzukizuna

41. Lanpostuaren erantzukizuna
42. Lanpostuaren erantzukizuna
43. Lanpostuaren erantzukizuna
44. Lanpostuaren erantzukizuna
45. Lanpostuaren erantzukizuna

46. Lanpostuaren erantzukizuna
47. Lanpostuaren erantzukizuna
48. Lanpostuaren erantzukizuna
49. Lanpostuaren erantzukizuna
50. Lanpostuaren erantzukizuna

51. Lanpostuaren erantzukizuna
52. Lanpostuaren erantzukizuna
53. Lanpostuaren erantzukizuna
54. Lanpostuaren erantzukizuna
55. Lanpostuaren erantzukizuna

56. Lanpostuaren erantzukizuna
57. Lanpostuaren erantzukizuna
58. Lanpostuaren erantzukizuna
59. Lanpostuaren erantzukizuna
60. Lanpostuaren erantzukizuna

61. Lanpostuaren erantzukizuna
62. Lanpostuaren erantzukizuna
63. Lanpostuaren erantzukizuna
64. Lanpostuaren erantzukizuna
65. Lanpostuaren erantzukizuna

66. Lanpostuaren erantzukizuna
67. Lanpostuaren erantzukizuna
68. Lanpostuaren erantzukizuna
69. Lanpostuaren erantzukizuna
70. Lanpostuaren erantzukizuna

71. Lanpostuaren erantzukizuna
72. Lanpostuaren erantzukizuna
73. Lanpostuaren erantzukizuna
74. Lanpostuaren erantzukizuna
75. Lanpostuaren erantzukizuna

76. Lanpostuaren erantzukizuna
77. Lanpostuaren erantzukizuna
78. Lanpostuaren erantzukizuna
79. Lanpostuaren erantzukizuna
80. Lanpostuaren erantzukizuna

81. Lanpostuaren erantzukizuna
82. Lanpostuaren erantzukizuna
83. Lanpostuaren erantzukizuna
84. Lanpostuaren erantzukizuna
85. Lanpostuaren erantzukizuna

86. Lanpostuaren erantzukizuna
87. Lanpostuaren erantzukizuna
88. Lanpostuaren erantzukizuna
89. Lanpostuaren erantzukizuna
90. Lanpostuaren erantzukizuna

91. Lanpostuaren erantzukizuna
92. Lanpostuaren erantzukizuna
93. Lanpostuaren erantzukizuna
94. Lanpostuaren erantzukizuna
95. Lanpostuaren erantzukizuna

96. Lanpostuaren erantzukizuna
97. Lanpostuaren erantzukizuna
98. Lanpostuaren erantzukizuna
99. Lanpostuaren erantzukizuna
100. Lanpostuaren erantzukizuna

PAGOLA
EMBUITOS
1040

DONEZTEBE



Joxe Irigoien alkatea abuztuaren 28an hil zen

Teresa Gasparrek hartu du kargua

tipi-ttapa

Joxe Irigoien Irungarai, herriko alkatea abuztuaren 28an hil zen, 67 urte zituela. Maria Jesus Perurenarekin ezkondua, hiru alaba eta seme baten aita zen. Duela urtebete eritasun larria diagnostikatu bal-

din bazioten ere, Herriko Etxean lanean segitu zuen Irigoienek. Jakina denez, joan den urtean, 2005eko maiatzaren 11n hartu zuen alkate kargua, zentsuramozio baten ondorioz. Azkeneko udal hauteskundeetan, Jose Cruz

Irigoien EAko zerrendan bigarren aurkeztu baldin bazen ere, Vicente Maylinekin batera taldea utzi zuen, independente gisara aritzeko. PNVko bi zinegotzi eta PNVtik ateratako bertze bi zinegotzi independenterekin batera

aurkeztu zuten mozioa eta EAko Ramon Etxebeste alkatetzatik kendu zuten.

TERESA GASPAR

LEGEALDIKO

HIRUGARREN ALKATEA

Joxe Irigoienek abuztuaren 4an sinatu zuen


ebazpenean, alkate kargua Teresa Gaspar Gutierrez lehen alkateordeari utzi zion. Beraz, Teresa Gaspar izanen da legealdi korapilatsu honetako hirugarren alkatea. Vicente Maylin Telletxea izanen da orain alkateordea.



UTZITAKO ARGAZKIA

Errekaren Udako Kirol Eskola arrakastatsua

Erreka Kirol Elkartek, bertze urtetan bezala, Udako Kirol Eskola antolatu du. Denetara sei eta hamabi urte bitarteko 28 haur apuntatu dira eta bi taldetan banatuak kirol ezberdinak landu dituzte: futbola, saskibaloia, boleibola, beisbola... Astean hiru egunez bildu ziren Doneztebeko frontoian, 11:00etatik 12:00etara talde bat eta 12:00etatik 13:00etara bertzea. Monitorea Maite Urreaga eta Noelia Ariztia doneztebarrak izan dira.



SUNBILLA

Eguraldi frexkoarekin baina giro ederrean igaro dira aurtengo Santiburtzio bestak

Txarangaren falta somatu da

Jaione OTXANDORENA

Bertze urte batez ekitaldiz gainezka zegoen bestetako programa eta ezin aipatu gabe utzi, batez ere egunez egin ziren ekitaldi guztietan jende aunitz bildu zela, bai parte hartzera eta baita ikusle moduan ere. Txupinazo aurreko herri kirol jaialdiak ere jende aunitz bildu zuen frontoira eta horren ondorioz, txupinazo ere nahiko jendetsua izan zen orain dela urte batzuk izaten zenarekin konparatuz gero. Basilio Sarobe apezak, herriar guztiei besta onak opa ondoren, beste hasiera eman zien suzeria botatu zuen. San Tiburt-


zio egunean, aurtengo aspaldiko urteren ondotik, herriko dantzarien saio polita ikusteko aukera izan genuen. Bertze berrikuntzetako bat ahari apustua izan zen, nahiz aharren batek borrokatu beharrean ihesari ematea nahiago izan zuen. Bestetan egindako ekitaldi guztietan irabazle suertatu zirenei, mus txapelketa, plater tiraketa, goitiberak... lerro hauen bidez zorionak, eta parte hartu zuen jende guztiari eskerrak ere eman behar zaizkio, egun horietan herrian izaten den giroaren sortzaileak baitira. Hala ere, gauza onak aipatzeaz gain, lerro hauetan idaz-



teak ematen duen abaintaila probetuz, herriko bestetan, bezperan eta gazteen egunean bezalaxe, gainerako egunetan txarangaren baten doinuak faltan botatzen direla aipatu behar da.

Eskolan jangela zerbitzua jartzeko eskaera

Irailaren 14an, arratsaldeko 17:00etan Ulibeltzak elkarteak bilera antolatu dute herriko zenbait gurasok. Datoren ikasturterako haurrek bazkari zerbitzua izatea lortu nahi da. Gai



ARGAZKIA: MAITE BIDARTE

Basilio Sarobe apezak botatu zuen besten hasierako txupinazo. Ondotik, hainbat ekitaldi egin ziren, tartean, herri kirol saioa.

honetan interesatua dagoen guztiari zabaldua dago bilera hau eta egun

horretan proposamenak egiteko aukera izanen da.



OITZ

Herriko bestak irailaren 7tik 10era ospatuko dira

Igandean herri bazkaria egingen da, Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua bertsolariekin

Ortzeguna 7

20:00etan: Altxaferoa beste hasiera emanez. Doneztebeko txistulariak herrian barna ibiliko dira. **21:00etatik aitzinera:** Herriko Ostatuan Baztan-Zopakizanen dira. **Gauetz:** dantzaldia JOXE ANGEL akordeoilariarekin.

Ortzirala 8

11:00etan: Meza Nagusia. Ondotik, hamaketakoa Herriko Ostatuan. **17:00etan:** Haurrendako jokoak herriko plazan. Ondotik haurrendako eta helduendako txokolata. **19:00etan:**

herritarren arteko III. Patata tortila lehiaketa. **Arratsaldez eta gauetz:** dantzaldia AMETSBIKOTEAREkin.

Larunbata 9

10:00etan: Gaztetxo-en txapelketako Larxo partida: OITZ - DONEZTEBE. **11:00etan:** Mus txapelketa herriko elkarteetan. **17:00etan:** Pilota partidak afizionatuen artean. **20:00etan:** dantzaldia AITOR akordeoilariarekin. **Gauetz:** Dantzaldia TRIKI DANTZ taldearekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Haurrendako jokoak izanen dira ortziralean.

Igandea 10

11:00etatik aitzinera: Herriko artisauen erakusketa. **13:00etan:** Herri Kirolak: Arria II eta Agite; Luis M^a Belarra eta Xabier Mindegiaren aurka. **14:00etan:** Herri Bazkaria. Bertsuetan, Sebastian Lizaso eta Iñaki Murua. **17:00etan:** Toka eta Sokatira herritarren artean. **Arratsaldez eta gauetz:** Dantzaldia JOXE ANGEL akorde-



UTZITAKO ARGAZKIA

Igande eguerdian, aizkora desafioa izanen da.

oilariarekin. Beste lejira herrian zehar eta bukaera emateko, GAIXOA NI.



ERATSUN

Lokariko Amabirjin festak irailaren 7tik 10era izanen dira

Igandeko herri bazkarian Amets Arzallus eta Beñat Lizaso bertsolariak arituko dira



ARTXIBOKOA

Festetako lehenbiziko eta azken eguneko musika animazioa Modesto ordo-ki akordeolariaren eskutik etorriko da.

Ortzeguna 7

21:00etan: txupinazoa. Ondoren zopajatea ostatuan.

Arratsaldez eta gauzez dantzaldia MODESTO akordeolariarekin.

Ostirala 8

9:00etan: Argisoinua txistulariekin.

11:00etan: Meza Nagusia Lokariko amabirginaren ohorez.

13:00etan: Aizkora apostua MINDEGIA

eta ARROSPIDE.

17:30etan: afizionatuen arteko pilota partiduak: 1- Urrutia-Urrutia; Etxeberria-Azanzaren kontra.

2- Ollo-Urzenki; Lasa-Arraztoaren kontra.

Arratsaldez eta gauzez dantzaldia TRAKETS taldearekin.

Larunbata 9

9:00etan: argisoinua

txistulariekin.

12:00etan gazteen erronda etxez etxe akordeolariarekin.

18:00etan: herriko gazteen arteko herri kirolak.

Arratsaldez eta gauzez dantzaldia TRAKETS taldearekin.

Igandea 10

9:00etan: argisoinua

txistulariekin.

11:00etan: herriko mus txapelketa.

1 saria: bildots bana. 2 saria: bina txuleta eta bina botella ardo. 3 saria: bina txuleta.



Goiz eta arratsaldez: umeen parkea karts eta gaztelu puzgariarekin.

14:00etan: herri bazkaria bertsolariarekin. Beñat Lizaso eta

Amets Arzallus.

18:00etan: afizionatuen arteko pilota partiduak. 1- Urrutia-Azanza; Urtasun-Otxotorenaren kontra. 2- Lasa-Arraztoa; Olaetxea-Izaren kontra. Ondoren ahari apostua.

Arratsaldez eta gauzez dantzaldia MODESTO akordeolariarekin.



udana

SCC-02-0199

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztua

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

ITUREN



ARTXIBOKOA

Goiz partean baserriz baseri ibiliko dira joaldunak.

Joaldunen Eguna irailaren 16an ospatuko da

Larretxea eta Nazabal aizkolariak arituko dira

Arkaitz MINDEGIA

Irailaren 16an urtero bezala Joaldunen eguna ospatuko da Iturenen. Goizeko 7:30etarako joaldunak plazan elkartuko dira dena prestatzeko eta 10ak aldera joaldunen eta herriko trikitilarien ibilaldia egiten hasiko dira baserriz-baserri. Goiz guztian baserrietan ibiliko dira eta baserritarrak urtero bezala ilusio haundiz hartuko dituzte bisitariak egun honetan. Pintxo goxo eta edari frexkoa deneibanatzen dizkiete. 11:00etan herriko plazan artisauen azoka ikusgai egonen da. Eguerdian herrira jautsi eta herriari buel-



ARTXIBOKOA

Atsedenerako astia ere hartu behar da.

ta eman ondoren 13:30ak aldera aizkora apostua izanen da Plazan. Aurtengoan Larretxea Nazabalen aurka arituko da. Ondotik bertsolarien txanda izanen da eta plazako guztia akitu ondotik, 15:00ak

aldera, Herriko Etxeko sabaian bazkaria izanen dute. Lagunartean eta giro ederrean bazkaldu ondoren arratsalde eta gauz dantzaldia izanen da, Joaldunen egunari akabaila emateko.

IKASTAROAK

Emakume eta adintuei zuzendutako ikastaroak antolatu ditu Cedernak Alkaiagan

Negozio ideiak identifikatzeko ikastaroa ere egingen da Elizondon

ttipi-ttapa

Cederna-Garalur elkarteak Alkaiagan duen enpresa zentron emakumei eta adintuei edo erretiratuak zuzendutako ikastaroak egingen dira irailaren 11tik 22ra. Ikastaro hauetan, oinarriko Windows, Internet eta posta elektronikoa erabiltzeko ikasiko dute. 20 orduko ikastaroa doan izanen da eta klaseak bi ordukoak izanen dira: emakumeak 9:45etik 11:45era arituko dira eta erretiratuak eta adintuak 11:45etik 13:45era. Izen ematea, goizeko 10:00etatik 14:00etara 948 625122 telefonora deituz egin behar da.

Modu berean, adintuentzat eta erretiratuentzat ikastaro bera eskainiko da

NEGOZIO IDEIEN IDENTIFIKAZIOA

ELIZONDON

Bertze aldetik, Cederna-Garalurek, Empleate proiektuaren barrenean, negozio ideien identifikazioa



ikastaroa antolatu du, Nafarroako Gobernuaren eta Europako Gizarte Fondoaren laguntzarekin. Irailaren 26 eta 28an egingen da Elizondoko Arizkune-ne Kultur Etxean, 9:00etatik 14:00etara, baina ordutegia izena ematen dutenen arabera alda daiteke. Kurtsoa doanekoa izanen da eta kilometraia ordaintzeko dirulaguntza izanen da. Ikastaroaren edukiei dagokienez, sormena edo pentsamendu kreatiboa, sormenaren blokeatzea eta sormena desblokeatzeko teknikak eta negozio ideiak sortzeko teknikak landuko dira.

Izen ematea, Cederna-Garalureko Lan Orientazio Zerbitzuan egin behar da, 619 82929 edo 948 625122 telefonoetara deituz.

Ark Arkaitz Mindegia

Arkaitz Mindegia

Arkaitz Mindegia

Arkaitz Mindegia

Gimno Gimno

Gimno

Gimno

Gimno



Berriz ere zuekin

Lurrek denboraldi berria irekitzen du

Dada pasu, eta kontuz bidean, orailu badirola sartzen berriz berri (begiratu web orria jakiteko ordutegiak,...) eta taxiak ere Lurreko atzetan.

•ko sarrerarekin mugatzen baino lehen sartzen bazara, irago bai opari, Ongi pasatzeko giroa, iragoak, musika, giro ona, neska eta mutilo adonak, bidetxoak, SMS-ak...

irailak **23**

INAUGURAZIOA

01:00 8€

irailak **24**

PIRRITX ETA PORROTIX

18:00 5€

irailak **30**

SU TA GAR

12:30 10€ aurretik 12€ lasterlan

GOIZUETA

Ongi eutsi dio herriak bere festen ospe onari

Yandenean egindako bi erraldoi ibili ziren aurten kaleetan

Eneritz AROTZENA

Aurtengo Amabirjinak ere bukatu dira eta beste urte batez esan daiteke arrakastatsuak izan direla bai antolatutako ekintzen aldetik baita jendearen erantzunari dagokionez ere. Amabirjin bezperako txupinazoaren ondoren herriko kaleetan barrena ibili ziren erraldoiek aipamen berezia merezi dute, izan ere erraldoi hoietako bi Yandeneako Bakerotarren familiak herriko beste hainbat pertsonen laguntzarekin egindakoak ziren, udalaren babes ekonomikoarekin

ere kontatu zutelarik. Egun berean ospatu zen Gazte Eguneko herri kirolak ere gustora ikusi zituen jendeak, gazte talde bati okurritutako proba bitxiak zirela eta. Amabirjin eguneko frontoiaren inaugurazioa eta Aimar Olaizolari eskainitako omenaldia oso hunkigarriak izan ziren, frontoia herritarrez leporaino bete baitzen.

PENAREN EGUN BEREZIA

Beste hainbat ekintzen artean ezin aipatu gabe utzi Amabirjin lagunaren Umore Ona peñaren bazkaria nahiz kalejira, ilunabar horre-



ARGAZKIAK: MAITANE APEZETXEA/OLAIA LEKUONA/ALAITZ ESKUDERO

Txupinazo jendetsua, Amabirjin egunean pilotaleku berrituaren inaugurazioan Aimar Olaizolari egin zitzaion omenaldia eta Gazte Egueko herri kirolak: aurten festa handiak laburbiltzeko hiru irudi.

tan bertan Zizkuitz txarangak hainbat urteren buruan egin zuen bereragerpena, eta nola ez,

fiestei amaiera emateko, Sagardo Eguna. Zazpigarren edizioa izan da aurtengoa eta bos-

tehun pertsona baino gehiagok dastatu zuten hainbat lekutatik ekarritako sagardoa.

ARESO

Lesioa gainditu eta Antiguako txapelketa irabazi du Olazabalek

Finaleko pilotari onena ere izendatu zuten Mikel

Juana Mari SAIZAR

Afizionatu mailako Antiguoko Torneoan Mikel Olazabal gaztea txapeldun suertatu zen Iñaki Iza bikotekide zuela. Izak hainbat huts egite egin zituen eta 18 tantuko berdinketa egin zutenean gauzak larritzen hasi ziren arren, azkenean 22-18ko emaitzarekin txapela irabazi zu-

ten. Ondorioz, Mikel izendatu zuten finaleko onena.

Udaletxea

Udaletxeko errotuloa (casa consistorial) euskaratua izan da eta orain "udaletxea" jartzen du bi eguzkilorearen artean. Lan hau herritar batek egin du sokekin baliatuz zintzilikatzeko.

UTZITAKO ARGAZKIA

Uharte-Arakilgo Artzai Txakurren txapelketan Antonio Alustiza eta bere txakur Ttikik txapela etxera ekarri zuten. Esan behar da hau dela lortzen duen 7. txapela eta txapel honekin Nafarroa ordezkaturiko du bikoteak Euskal Herriko txapelketan.



LEITZA

Taloaren Eguna ospatuko da lehen aldiz herrian irailaren 10ean

Plazaolako Partzuergo Turistikoak antolatuta

ttipi-ttapa

Igande honetan, irailaren 10ean, Taloaren Eguna ospatuko da lehen aldiz Leitzako Plazan, Plazaola Partzuergo Turistikoak, Leitzako Udalaren babesarekin antolatuta. Goizeko 10:00etan Merkatuaren irekiera egingen da. Leitzako hiru talo-egileek hartuko dute parte, Villabona, Saralegi eta Talotegiak. Hauekin batera, Plazaola Partzuergoko artisauak ere bertan izanen dira: Anatxonea, Basakaitz eta Bikain gaztak; Artzeluze eta Angel Beunza zur lanak; Isabel Telleria eztiak; Urrutia hestebetak, Morele zeramika eta Martitxonea sagardoa.

HAURRENTZAKO TALO LEHIAKETA

11:00etatik 12:30etara haurrentzako eta familientzako ekintzak egingen dira. Esate baterako, 4 eta 14 urte arteko neska-mutikoek taloak egiteko tailerren parte hartzeko aukera izanen



ARTXIBOKOA

Haurrentzako taloak egiteko tailerrak eta ondotik talo lehiaketa ere egingo dira igandean plazan.

dute. Ondotik, haurrentzako talo lehiaketa egingen da eta sariak ere banatuko dira. 12:30etan, «Herriz herri» herri kirol txapelketako saioa egingen da. Saio honetan, hiruzpatalu taldek hartuko dute parte. Talde hauek bi proba konbinatu ezber-

dinetan lehiatzen dira: batean, koxkor biltzen, zaku lasterketan, aizkoran, korrika eta arpanan arituko dira eta bestean, txinga eramaten, harri altxatzen eta ingudean.

Goiz osoan, taloekin egindako plateren erakusketa egingen dute Ka-

rrapean herriko jatetxe eta tabernek. Arakindegia jatetxea, Landa osatua, Musunzar ostautua, Sagasti jatetxea, Iruso jatetxea, Beatrizenea taberna, Gaztañaga taberna, Txoko taberna eta Leitzako jubilatuen elkarteak parte hartuko dute erakustal-

ARANO

273.576 euroko aurrekontua izanen du Udalak

ttipi-ttapa

Aranoko Udalak 273.576 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurten, behin betiko onartutako udal aurrekontuaren arabera. maiatzaren 25ean egindako batzarrean hasierako onespena eman zitzaion udal aurrekontuari eta uztailearen 4an jendaurrean erakutsi ondotik, alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betirako onartu da. Gastuei dagokienez, aurrekontuaren erditsua, 137.466 euro zehazki, inbertsioetan joanen da. Langileak ordaintzeko 59.000 euro erabiliko dira eta ohiko zerbitzuak eta ondasunak ordaintzeko 43.595 euro. Diru-sarrerei dagokienez, handiena zerga ezberdinen bitartez lortuko da, 113.900 euro. Dirulaguntzekin 45.146 euro eskuratuko dira.

HEDEKUNTZA NATURALA
NATUROFATIA

Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala

Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala

Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala

Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala

Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala

Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala

Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala

HERRIKO UDALA

Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala

Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala

Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala

Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala

Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala

Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala


Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala

Herriko Udala
Herriko Udala
Herriko Udala

BAZTAN



ARTXIBOKOA
Margari Aizpururen margolanak ikusgai izan dira Zigaurreko Garagarrean.



MAITE OTEIZA

Iruritako Dantzari Egune
Abuztuaren 20an, Iruritak Dantzari Egune bizi zuen berriz ere. Egun eguzkitsuaren laguntzaz 64 dantzari plazan elkartu ziren, beren erakustaldia eskaintzeko. Betidanik dantza tradizioa haundia izan da herrian, D. J esus Jaime-renaren eskutik hasiera eman zitzaionetik gaur artio. Gaur egun aldaketa haundiak izan dira: janzkera aldetik eta baita dantza berriak ikasi diren aldetik. Aurtengo edizioan 64 lagunek parte hartu dute dantzan eta musikariak Baigorriko eta Tuterako gaiteroak, Itziar Aleman amaiur-tarra (akordeoia), Nuria Garate, Xavier Ripa eta M^a Jesús Urtasun (txistu), Xabier Urtasun (txirula eta txistu), Cristina Urtasun (txistua eta bonboa) izan ziren. Dantza irakasleen aldetik Maribel San Jose, Isabel Elizaintzin, Pili Urrutia eta Cristina Urtasun, azken honek aurten ikusi ditugun dantza berriak erakutsiak, ordu aunitz sartuta. Eguerdian dantzarien txanda izan zen eta egune borobilkatzeko zikiro-jatean 100 lagun bildu ziren arras giro onean.

Basaburuako herri ttikiak turismo lanetan haundiak

Lan bikaina egin dute Ziga eta Anizen

ttipi-ttapa

Bisita gidatuak antolatatu dituzte udan Ziga-ko Aldekoetxeberria, Etxezuria, Ostatu Zaharra eta Anizko Jauregia landetxeek, Hiruak Bat elkartearen laguntzarekin. Herritarrak ibili dira turistei ibilbideak eta tokiak erakusten: Jauregia gasnategia, Zigako eliza, garbileku zaharrak, aziendak, maiorazgoak, herri eskolak, auzolanak, tradizioak...

Etxezuria Landetxean igandetan Baztan Zo-

pak dastatzeko aukera izan dute turistek. Bertako 10 produktu baino gehiago ezagutu eta probatzeko aukera izan dute, asteazkenero.

Anizko Jauregiako Azkarate familiak berriz, bisita gidatuak antolatu ditu ortzegunero, beraien azienta esplotazioa eta gasnategia erakusteko. Bisita hauetan, bazkaria ere eskaintzen zuten.

Zigako Zigaurre auzoko Garagarrean margo erakusketa areto be-

rria zabaldu du udan Margari Aizpuruk. Hainbat herritan erakusketak jarri arren, «*etxean inon ez bezala daudel*» erran digu. Beretzat erosoagoa da, etxean bertan dagoelako eta margolanak ere hobe kontserbatzen direlako. Beti gustatu zaio bere margolanak erakustea, eta autodidakta izanik, esku ona duela erakutsi digu. Berak dioenez, pazientzia aunitz behar da horrelako lanak egiteko eta berak soberan

du. Detailez detaile egiten ditu quadroaren zatia, eta aitortu digu beretzat gustokoena bodegoiak margotzea dela. Halere, ikuslegoa zabal delako kontuan hartzen du eta denetarik lantzen saiatzen da, paisaiak, figurak... Udan ibili den jendearekin kontent agertu da. Zigau-

rren bertan, aspalditik Karakoetxean Jesus Montesén margo lanak ikusgai egon izan dira. Aurten ere zabaldu du erakusketa. Orain arte erakusketa bakarrik erakusteko aukera izan dute ikusleek. Aurten, ordea, bi erakusketa izan dutenez pozik azaldu dira bisitariak.



BAZTAN

Elbeteko Gurutze Sainduko bestak irailaren 13tik 16ra

Larunbatean zikiro-jatea eta zozketa egingen dira

Asteazkena 13 BEZPERA

18:00etan: Su ziria eta ezkil jotzea. **21:00etan:** Herriko ostatuan Baztanzopak. **0:00etan:** Txopo goratzea. **Ondotik:** FRANZISKOREkin dantzaldia.

Ortzegune 14 GURUTZE SAINDUAREN EGUNE

9:00etan: Argisoinuek. **11:30ean:** Meza Nagusia. Ondotik herrikoendako luntxa. **18:00etan:** bapateko mus txapelketa. **20:00etatik 22:00ak artio:** dantzaldia FRANZISKOREkin. **22:00etan:** Mutildantzak. **Gauetz:** dantzaldia FRANZISKOREkin.

Ortzileria 15 HAURREN EGUNE

9:00etan: Argisoinuek. **14:00etan:** Gazteen bazkaria. **17:00etan:** plazan Pailasoak: "SR.FER, PO-

PI ETA ZARATRAKO". Ondotik txokolatada. **20:00etatik aitzinera:** Kontzertuak: JALISCOBAND, ASKE, UFESTUEK. **22:00etan:** Mutildantzak tartean.

Launbeta 16 ZIKIRO EGUNE

9:00etan: Argisoinuek. **14:00etan:** Zikiro Jatia. (Txartelak Elbeteko ostatuan eta Karrika ostatuan salgai). **18:30ean:** Perurena aita semeen harriz jasotze ikuskizuna eta Fausto Mugerzaren 5 metro altuerako egur mozketaren ikuskizuna. **20:30etik 22:00ak artio:** dantzaldia TXIMELETA taldearekin. **22:00etan:** Mutildantzak. **22:30ean:** TFT Telebista bat, Dvd bat eta 2 Gasnen zozketa. **0:00etatik 4:30era:** dantzaldia TXIMELETA taldearekin. **5:00etan GAI-**






UTZITAKO ARGAZKIA

1929ko argazkia. Goitian, ezker-eskuin: Braulio Iturria, Zumeta, Salvador Sobrino, Ramon Cenoz, Ramon Berekotxea, Javier Lasarte, Luis (Escapa), Jose Arizmendi eta Apeztegia (gero apeza izanen zen); Sor Jesusa mojarren leerroan, Ignacio Canuto, Vidal Bailon, Zabala, Perico Trantxe, Jose Mari Ziaurritz, Jesus Gomez, Manolo Olabe, Blas Belzunegi eta Felix del Moral; hirugarren leerroan, Julian Jaimerena, Misericordia etxeko ikaslea Pello Argain, Felix Eskerne, Boni Ziaurritz, Jose Ramirez eta Justo Carrasquedo; behegian, Juanito Arizmendi, tren estaziokoa, Belzunegi (gero apeza izanen zen), Juan Jose Maisterrena, Misericordia etxekoa, Korreosekoa eta Jesus del Moral; eskaileran, Agustin, Orregan istripuan hil zen organista eta bere arreba.



UTZITAKO ARGAZKIA

Urte batzuk beranduago, Felix del Moral, Martin Habans, Pepe Etxeberria, Perico Ansorena, Juanito Lasarte, Lucio Habans, Javier Etxeberria eta Esteban Lasarte. Behegian, Fidel Garaikoetxea, Antonio Arla, Javier Lasarte, Emiliano Gonzalez, Pello Etxeberria, Jesus del Moral, Javier Karrikaburu eta Juantxo Habans.



BAZTAN

Lehenbiziko dantza taldea omendu zuten Lekarozen San Bartolome egunean

Erratzu eta Iruritako apezak parrokiak aldatu dituzte

Maite OTEIZA

San Bartolome egunean, bestetako egun inportanteenean, Lekarozko lehenbiziko dantza taldea omendu zuten. Horretarako 32 neska, adin guztietakoak, 18-70 artekoak, hainbat dantza eskaini zuten.

Jende aunitz bilduzen, herritarrek eta kanpotarrak, omenaldi xume honetan beraiekin egoteko.

Dantzen ondoan, idatzi labur eta hunkigarri batek, azaldu zaku nola sortu zen talde hori. Geroztik Larteko Lolo, Xarreko Txefa, Martingo M^a Cruz, Ortiborroko Pazita, Turraldeko M^a Cruz, Bordaiko Carmen, Etxebarriko Puri eta Etxegaraiako Enkarnari oroigarri bana eman zioten denen txalo artean.

Apezen leku aldatzea

Buruilaren 5 eta 10ean, Erratzuko eta Iruritako apezak parrokiak aldatu dituzte. Ander Gillegi, Erratzu, Arizkun, Amaiur eta Zugarramurdiko apeza Lesakara doaie. Abuztuaren 26an San Miguelen bisita aprobetxatuz agurra eskaini zioten, zenbait opari eta bazkari

eder batekin frontoian, herri hauetako 200en bat lagun bildurik. Mezan herriko korua Mila Brañak zuzendua eta organoan Claudia Alvarez de Eulatek lagundurik, jende andana bildu zen. Bertze aldeitik, Patxi Izko, Irurita, Arraioz eta Zigako apezak hondar 6 urteotan, Leitzara doaie. Mezan oroigarria oparitu zioten. Erratzun, orain artio bezala, Imanol gelidituko da eta Iruritako parrokiara Lesakan zegoen Alfonso Garzandia etorriko da.

Ikasturte hasiera

Ale hau etxeetara ailegatzearekin segurasiki gure ume gehienak, eskolako lehenbiziko egune izan dute. Baztango eskoletan buruilaren 7 eta 9a artean hasi izan dira. Zenbait eskoletan konponketak izan dituztenak: Amaiur, Azpilkueta, Erratzu, Arraioz eta eskola berriarekin Zigan.

Dagoeneko Almanozko eskola berria ere martxan da. Izan ere, lanen adjudikazioa abuztuaren agertubait zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Ongi pasatu ikastur-



ARGAZKIA: FOTO MENA

Lekaroztarren omenaldia jaso zuten 1955ean herriko dantza taldea sortu zuten zortzi emakumeek. Gaur egun ezinezkoa da San Bartolome egune dantzarik gabe irudikatzea.

te berri honetan!



ZUGARRAMURDI

Elizako ezkil berrituak jarri dituzte abuztuaren 12an

Ander Gillergiren ordez Imanol Prieto izanen da apeza

Margari eta Koro

Elizako ezkilak zintzilikatzeke lana besta aitzineko ikuskizuna bihurtu zen. Abuztuaren 12an, plazan jarri zen garabia baten laguntzarekin, dorrera igan ziren hiru ezkilak eta lan hauetan aritu ziren bi tartean, ederki animatu ziren bazterrak, turistek argazki eta guzti ateratzuten.



Gogoratuko duzue, ezkilak otsailaren 27an kendu ziren Valladolid eta Corellara eramateko moldaketa lanak egiteko, eta baldintza zen bestetarako berriz jarriak izatea. Doi-doï baina hala izan da, eta abuztuaren 14ko eguerdian inaguratu ziren, plazatik apezaren bedeinkapena eta ondotik ezkil errepikaldia

emanez. Erran behar da orain ezkilak automatikoki joko direla, baina inagurazio egunean, nahi izan zuen guztiak dorrera igateko aukera izan zuen, han errepikaldia eskuz jo ahal izateko.

Ander Gillegi apezari agurra

Abuztuaren 26an Erratzun egin zitzaion despedida Ander Gillegi apezari, orain arte Arizkun, Erratzu, Urdazubi eta Zugarramurdi-ko elizetan aritu dena. Lau herrietako herritarrek egon ziren despedida huntan, eta Zugarramurditik ere 26 lagun joan ziren beren agurra emateko Anderi. Hemendik aitzinera Imanol Prieto izanen da herriko apeza.

ARGAZKIA: MARGARI
Lehen mailako turismo ikuskizuna bilakatu zen hiru ezkil berrituak berriz ere bere lekuan ezartzeko lana. Besta bezperan inaguratu ziren.



URDAZUBI

200 lagun bildu ziren Kultur Eguneko bazkarian

Monastegiko klaustroan erakusketa zabalik dago

Fanny eta Aitor

Abuztuaren 5ean Egun Kulturala antolatu zuen Udalak. 200 pertsona inguru hurbildu ziren bertarat, gehienak herrikoak, nahiz eta bertze urteetan baino kanpoko gehiago ere izan. Egun Kulturala Euskaltzaindiko Patxi Salaberriren solasaldiarekin hasi zen. Honek Iruña, Euskal Herriko hiriburuari buruz hitz egin zuen eliza ondoan. Leku berean ziklo-jatea egin zen eta bazkalondoan, dantzaldia Joxe Angelekin eta bere Amairko lagunekin.

Andres Diharassary alkateak Eskual Herriaren edo gure eskualdeko zenbait ospetsu gonbidatu zituen bestarot, hala nola Joan Mari Irigoien, Jean Haritchelar (Euskaltzainburu ohia), Peio Salaburu (EHUko errektore ohia), Virginia Aleman, Julio Ibarra, Koldo San Sebastian, Martxelo Otamendi eta Josu Goia. Aski giro po-

lita sortu zen bazkarian, gauean berandu arte iraun zuena.

Erakusketa monastegiko klaustroan

Uda honetan monastegiko klaustroan Esteban de Laseni (Santander 1916-Angelu 1998) eskainitako erakusketa izan dugu. Bere obra Frantzia, Japonia, Suitza, AEB eta Argelian erakutsia izan den arren hau du Pirinioak gurutzatzen dituen lehen aldia.

Erakusketa honetan bere lanez gain, bere lagunak eta miresleak ziren beste hainbat artista ezagunenak ere aurki ditzakegu. Marc Etcheverry-Louprien antolatzaileak (Otxondo events) dioten bezala, honek artearen maitale bat baino gehiago ekarri du gure herrira. Berak dioenez, klaustroa leku ezin egokiagoa da herriko eskaintza kulturala bultzatzeko eta gure inguruetako puntu

erakargarri bat gehiago dela azpimarratzen du, pasa den jende kopuruak datu hori konfirmatzen duelarik (abuztuaren 4.600 pertsona inguru).

Uztaileko jostaldia

Gan den urtean, lehendabiziko aldiz, udaleku irekiak antolatu ziren Urdazubi eta Zugarramurdiko herrietan. Izan zuten arrakasta ikusita, aurten beriz ere antolatu egin ditu Fanny Bonnemaizon Urdazubiarrak, bere ahizpa Joneren laguntzarekin.



Uztaileko lehenengo hamabortzaldiko jostaldia Urdazubiko eskolan igaro da, eta bigarrena Zugarramurdikoan. Gan den urtean goizetan izaten bazen, aurten arratsaldeetan izan da, 14:30etik 17:30era. Bi herrietako hiru eta hamar urte bitarteko 15 haurrek izen eman dute.

Hau posible izan da bi herrietako Guraso El-





ARGAZKIAK: FANNY BONNEMAISON

Egun Kulturean hainbat pertsonai ospetsu bildu ziren herrian. Beheitan, uztaileko jostaldian parte hartu zuten haur batzuk ageri dira.



Berriemaile berriak Urdazubin
Aitor Olló eta Fanny Bonnemaizon dira Urdazubiko berriemaile berriak. Herriko berriren bat ttipi-ttapan agertzea nahi baduzu, 620 486629 edo 659 779830 telefonoetara deitu.



Ikasturte berria



Ikastaroak • Materiala • Ikastaroak • Materiala • Ikastaroak • Materiala • Ikastaroak

IKASTARDA

Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira. Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira.

IKASTURTE BERRIA

Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira. Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira.

EUROCENTRES

Language Learning Workforce

Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira. Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira.

IKASTURTE BERRIA

Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira. Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira.

SPARK

JULIE'S ENGLISH ACADEMY CENTER

Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira. Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira.

LEGARRA

Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira. Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira.

BEEP

MINISTERIOAREN DIRULAGUNTZA

Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira. Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira.

CASA OSTIZ

IKASTURTE HONETAKO TESTU LIBURUAK SALGAI

Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira. Ikasturte berria hasi da eta ikastaroak martxoaren 14an hasiko dira.

SARA

Herriko bestak buruilaren 9tik 13ra izanen dira

Asteazkenean azienda prima eginen da eta bertsolariak leihotik leihora arituko dira

Larunbata 9

17:00etan: Sara Korrika, 12kmko lasterketa. **22:00etan:** Kontzertuak SILIKONAY eta KAOTIKO taldeekin. **0:00etan:** Dantzaldia KOLOKA taldearekin. **Gau guzian:** Iparraldeko gaiteroak eta txarangak arituko dira.

Igandea 10

10:00etan: Meza Nagusia Urruñarrak klarekin. Danborrada Mariñelak taldearekin. **10:30ean:** Luzean errebotean Azkain Baionaren aurka. Goizean, Sara, Baigorri eta Iruñeko gaiteroek karrikak animatuko dituzte. **16:30ean:** Joldunen eta karrozen desfilea. Hortik aitzinera: Ahatejokoa. Herri kirolak, Gabadi Urruña eta Amaiu-

rren artean: Soka tirra, orga altxatzea, ingudeak, txingak. **19:00etan:** Aperitifa Baionan Kantuz taldeak alaiturik. Trinketea, Pleka Sariko lehen finalerdia Alfarro eta Etcheto, Muzcardits eta Ezkurraren aurka. **22:00etan:** kantaldia SAIBERRI taldearekin. **23:30ean:** dantzaldia ENTZUN taldearekin. **0:00etan:** Suzko zezena. **Arrats guzian:** UNTSALAZ txaranga arituko da.

Astlehena 11

10:00etan: Diana Gaitero eta txistulariekin. **10:30ean:** Luzean errebotean Kapito Harri, Luzaz Gazteren aurka. Trinketea, pasakan, Mattin Partarieu saria Sarako Izarra SPUCen aurka. **13:30ean:** Zi-



ARTXIBOKOA

Herriko dantzariak beraien saioa eskainiko dute aurren. Horretaz gain, pilota partidak jokatuko dira kasik egunero, luzean nahiz trinketea.

kirojatea, Olhain ikastolak antolaturik. **16:30ean:** artzain xakur txapelketa. **18:30ean:** dantza erakustaldia. Trinketea, Pleka sariko bigarren finalerdia Larretxea eta Oçafraín, Idiart eta kurutxarriren aurka. **19:00etan:** aperitifa trikitilariet animaturik. **22:00etan:** kantaldia Dominika eta Niko Etxartekin. **23:30ean:** dantzaldia GAUXORIAK taldearekin.

Astearte 12


10:00etan: diana gaitero eta txistulariekin. **10:30ean:** Luzean errebotean Hazparne Senpereren aurka. **17:30ean:** Joko garbi-

ko partiduak. Gazte mailan, Sara Hardoyen aurka. Helduen mailan, Luzaz Gazte Baionaren aurka. **19:00etan:** mutxikoa KUXKUXTU txarngarekin. **20:30ean:** aperitifa trikitilariet animaturik. **22:00etan:** dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Asteazkena 13

9:00etan: diana txistulari eta gaiteroekin. **9:00etan:** trinketea Sarako azienda prima. **10:30ean:** puzgariak. Trinketea, Xokoan Pedavia Saria. Finalerdiak: Aguirre de Ezkurraren aurka eta Bideondo Indaren aurka. Finala ondotik jokatuko da.

17:00etan: pilota partidua frontoian Mariluz eta Berasategi, Etxeberri eta Matiaren aurka. **18:30ean:** Trinketea Pleka sariko finala. **18:30ean:** Bertso saioa leihotik leihora Txomin Ezponde, Amets Arzallus, Sustrai Colina eta Julen Zelaietarekin (Goizeko azienden txapelketa ere arituko dira). **19:30etan:** Aperitifa Xalbador eta Ihi-doyen kantaldiarekin. **22:00etan:** Dantzaldia Kiki Bordaxorekin. **23:30ean:** Suzko zezena. **0:00etan:** Dantzaldia XI-TOAK taldearekin. Gau guzian Los Incansables txaranga arituko da.



SARA

Etxegarai beratarrak irabazi zuen Kontrabandisten Lasterketa

Probako errekorra egin zuen, 38 minutu eta 36 segundurekin

Laetitia eta Sandrine

Mugaz bi aldeetako 18 herrik parte hartzen dute eta bakotxetarik bi lasterkari izaiten dira Zazpi Fagoko itzuliaren egiteko. Kirol ekitaldi honetaz gain egun osoan eskulan eta bertze lekuko ekoizpenen azoka izaten da. Arratsaldeko 5etan abiatu ziren 36 lasterkariak beren zama bizkarrean zutela. Aurten Fernando Etxegarai beratarrak irabazi du lasterkaldia 38 minutu eta 36 segundutan eginez itzulia. Orain berak du lasterkaldi guzietako errekorra, joan den urtean Ramuntxo Lamothe saratarrak egindakoa 20 segunduan hobetu baitu. Bigarren, Igantziko Patxi Irazoki izan zen eta Etalarko Iñigo Lasaga hi-



UTZITAKO ARGAZKIA

Eskuinetik hasi eta ezkerrera, lasterketako lau lehenbuzikoak: Fernando Etxegarai beratarra, Patxi Irazoki igantziarra, Iñigo Lasaga etxalartarra eta Joxelu Loiarde beratarra.

rugarren. Nesketan, Maika Ariztegi iturndarrak irabazi du. Saratik zazpi lasterkarik parte hartu dute, Bernet Jakes 8garren, Balairé Alain 10garren, Saint Martin Beñat 19garren, Etchegaray Claude

20garren, Goyenatche Pierre 23garren, Lesage Michel 24garren eta Imaz Jeannot 25garren.

Xoko lehiaketa

Pleka trinketeak antolatutako 10 garren xoko lehiaketa uztailaren

29an bururatu zen. 120 pertsonen parte hartu dute finalak hirugarren mailatik hasiz maila hobereena arte jokatu ziren. Emaitzak hauek dira :

3.maila: Camou Yvan (Urruña) irabazi Dibar Panpiri (Kanbo).

2.maila B: Saint Martin Beñat (Sara) irabazi Alfaro Amaiuren kontra (Angelu).

2.maila A: Vella Mikael (Sara) irabazi Lasaga Philippen kontra (Sara).

1. maila: Urdampilleta Bixente (Azkaine) irabazi Duperou Olivieren kontra (Urruña).

Mailaz kanpo: Aguirre Grégory (Urruña) irabazi Bideondo Jean Philippen kontra (Urruña).

Lehiaketa goxotasun osoan bukatzeko bazkaria antolatua izan da.





FLASH

Zazpiak Bat dantza taldearen erromerian buraso gutti

Uztailaren 23an larunbatarekin, Zazpiak Bat dantza taldeak bere erromeria antolatu zuen eta 150 bat pertsona hurbildu ziren. Zazpiak Bat taldearen bulegoak eskertzen ditu etorri diren buraso korporu eskasa. Oroitarazten dute urtean zehar xahutze erregularrak dituela (dantza kurtsoak, txistu kurtsoak eta jantzien berritzea). Horregatik, erran gabe doa, buraso eta haur gehienen parte hartzea ezin bestekoa dela, taldeak antolaturiko ekitaldietan.

Salsa kurtsoan izen emaita buruillaren 16an

Aurten, lehen aldikotz, Zazpiak Bat taldeak salsak ikastaroak antolatu zituen ostirale guziz arratseko 8etatik 9ak arte dantzako salan. Izen emaita buruillaren 16an, larunbatarekin, 14:00etatik 16:00ak arte dantzako gelan egingen dira.



SENPERE

Senpereri buruzko informazio oparoa eskaintzen du Auñamendi entziklopedia atera berriak

Turismoaren erosteko ahalmena apaldu dela diote herriko saltzaileek

Franck DOLOSOR

Gure herriari buruzko zehetasun andana biltzen du berriki argitaratu den Auñamendi euskarazko entziklopediak. Artikulu interesgarriak daude bertzeak bertze Bernardo Estornesek egin duen entziklopedia hortan. Sarean ere irakur daiteke lan hunek gogoratzen du konparazione xistera Senperen sortu zela.

Gaur, mundu osoan jokatzen da zesta punta. Bertzalde, izenaren inguruan Sanctus Petrus

d, lvarren agertzen omen da 1233ko agiri historiko batean. Saint Péed, lbarren aipatzen da 1763an. Izen horiek lotura dute dudarik gabe lbarrun auzoaren izenarekin. Preseski, auzo hori lbarre de Labort bezala agertzen da 1450an egin zen Nafarroako mapa batean. Frantziako iraultza garaian Senperrek Beaugard izena hartu zuen.

Gaurko egunean, bortz mila lagun pasatxo bizi dira Senperen. Entziklopediaren ara-



Herriko pilotariak Amotzeko trinketean.

ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

bera, 1718an 2.250 herritar ziren, 1975an 2.571, eta 1982an 3.042. Zenbaki hauek untsa erakusten dute gure herriak haunditasun bera izan zuela luzaz eta azken urteetan baizik ez dela azkarki haunditu. Auñamendi entziklopediaren arabera 1968an 2.422 lagun bizi ziren Senperen eta horietarik 2.050ek euskara mintzo zuten.

Eskolara

Agorriko azken egunekin eta buruila




hastapenarekin eskolako bidea hartu dute berri herriko gazteek. Uda eta, beraZ, milaka udatien bitartean bururatu dira. Herriko saltzaile batzuek diote aurten ongi sumatu dutela turisten erosteko ahalmena azkarki apaldu dela. Gu-

UTZITAKO ARGAZKIA

Senpereko argazki xahar hori sarean ikusi dugu. 1910 eta 1934 urte bitartean egina izan omen da.

re eskualdeak erakarria izaten segitzen du eta aurten ere milaka lagun etorri dira Senpererat baina ez omen lukete usaian bezainbat dirurik gastatu. Ondoko asteetan, bilan sakona eginen dute turismo sailko arduradunek.



Maria GOLDARAZ MENDIOROZ
(1926-V-29/2005-IX-17)

I. URTEURRENA

Zurekin amatxo joan da gure bizitzaren zati-ha di bat baina gure bihotzean gelditzen da zuk emandako guztia.



Iñaki ITURRIA ARBURUA

Etxalarren hil zen 2006ko abuztuaren 23an, 37 urte zituela

Zure begien dizdira eta ezpainetako irria beti gurekin egonen dira Iñaki maitagarria.
ZURE FAMILIA.

EZKONTZAK

Ander Oteiza Lizasoian eta **Leire Elizondo Erasun**, Oizkoa eta Beintza-Labaiengoa, abuztuaren 19an.
Mario Otero Villanueva eta **Maria Soledad Telletxea Ezkurra**, Lesaka eta Saldiaskoa, uztailaren 29an.
Garikoitz Larraburu Bertiz eta **Joana Hernandorena Ibarra**, Irun eta Sunbilla-koa, abuztuaren 26an.
Jose Javier Maritorea eta **Ana Belen Apezetxe Santxotena**, Arizkun eta Erratzukoa, uztailaren 15ean.
Jose Antonio Ullate Fabro eta **M^a del Coro Valvanera Marin Palacios**, Iruña eta Beirekoa, Erratzun, uztailaren 16an.
Francisco Jaurena Jaurena eta **Noelia Souza Martins**, Arizkun eta Elizondokoa, abuztuaren 5ean.
Fernando Valencia Hernandez eta **Ana Cadena Zizur**, Lergakoak Elizondon, abuztuaren 12an.
Santiago Juanikotena Etxegarai eta **Maria Borda Rodriguez**, Elizondokoak, abuztuaren 12an.
Manuel Morales Morales eta **Arantza-zu Araguas Gonzalez**, Bartzelona eta Burlatakoa, Almandozen abuztuaren 19an.
David Telletxea Nariezkurrena eta **Sandra Buldain Mariezkurrena**, Ezkurra eta Leitzakoa, uztailaren 22an.

SORTZEAK

Sara Bertiz Conde, Beintza-Labaiengoa, uztailaren 20an.
Jon Egizabal Sagastibelza, Leitzakoa, abuztuaren 3an.
Joanes Sagastibelza Zabala, Leitzakoa, abuztuaren 4an.
Enaitz Otermín Osinalde, Leitzakoa, abuztuaren 5ean.
Kemen Ruiz Zapiain, Berakoa, uztailaren 21ean.
Jon Errandonea Garbalena, Berakoa, uztailaren 28an.
Malen Lekuberria Senper, Berakoa, uztailaren 24an.
Nahia Agirre Jorajuria, Berakoa, uztailaren 20an.
Aimar Martinez Seoane, Berakoa, uztailaren 31n.
Haizea Garmendia Sebastian, Berakoa, uztailaren 31n.
Aiala San Juan Arotzena, Berakoa, abuztuaren 12an.
Iker Goikoetxea Goia, Berakoa, abuztuaren 12an.
Asier Etxeberria Etxeberria, Beintza-Labaiengoa, abuztuaren 6an.
Kattalin Txoperena Lakar, Lesakakoa, uztailaren 28an.
Aimar Obregozo Martirena, Elizondokoa, uztailaren 25ean.
Keyra Ballarena Juanaberria, Elizondokoa, uztailaren 18an.
Raika Ballarena Juanaberria, Elizondokoa, uztailaren 18an.
Oier Oiartzabal Agirre, Doneztebekoa, abuztuaren 3an.
Enara Santesteban Mutuberria, Zubietakoa, abuztuaren 12an.
Magali Mariñelarena Iratzoki, Sunbilla-koa, abuztuaren 4an.
Alazne Irigoien Etxarte, Etxalarkoa, uztailaren 21ean.
Naroa Irigoien Etxarte, Etxalarkoa, uztailaren 21ean.

HERIOTZAK

Antonia Burgete Elorga, Elbetekoa, uztailaren 20an, 78 urte.
Angel Elizalde Arriada, Arizkungoa, uztailaren 21ean, 80 urte.
Esteban Zaldain Agerre, Arizkungoa, uztailaren 22an, 96 urte.
Benigna Etxeberria Ariztia, Elizondokoa, uztailaren 24an, 94 urte.
Fermina Bengoetxea Esparza, Elizondon, uztailaren 28an, 87 urte.
Juana Mendiburu Etxeberria, Azpilkue-
 takoa, uztailaren 26an, 83 urte.
Ildefonso Inda Goñi, Lesakakoa, uztailaren 29an, 80 urte.
Anunciacion Mendegia Goia, Berakoa, uztailaren 31n, 69 urte.
Aniceto Etxeberria Telletxea, Igantzikoa, abuztuaren 1ean, 88 urte.
Maria Socorro Iribarren Abad, Legasakoa, abuztuaren 6an, 79 urte.
Maria Carmen Bidegain Elizondo, Irurita-
 kkoa, abuztuaren 6an, 66 urte.
Juan Minguito Ontoria, Etxalarkoa, abuztuaren 10ean, 81 urte.
Juan Indaburu Mendiburu, Zugarra-
 murdikoa, abuztuaren 11n, 84 urte.
Jose Ramon Larretxea Lizardi, Berakoa, abuztuaren 12an, 52 urte.
Carmen Alzuri Zozaia, Igantzikoa, abuztuaren 15ean, 91 urte.
Maritxu Etxenike Barberena, Etxalarkoa, abuztuaren 17an, 78 urte.
Nartxi Polo Leiza, Elizondokoa, abuztuaren 18an, 79 urte.
Ignacio Indart Sarratea, Legasakoa, abuztuaren 20an.
Encarnacion Carrascosa Gutierrez, Elizondon, abuztuaren 7an, 89 urte.
Iñaki Iturria Arburua, Etxalarkoa, abuztuaren 23an, 37 urte.
Joseph Marron Garcia, Sarakoa, abuztuaren 2an, 83 urte.
Leon Elizalde, Sarakoa, abuztuaren 17an, 80 urte.



**Aniceto
ETXEBERRIA TELLETXEA**

(Igantzi, 1918-V-27/2006-VIII-01)

Atatxi joan zara ta denok triste gaude jakin ezazu aunitz zaitugula maite hemendik aitzinera amjatzikin zaude denon partez bieii agur ta ikusi arte.


Zure ilobak: Patri eta Lander, Mikel, Asier eta Itziar, Lander eta Elena, Esti eta Jabi, Gorka, Olatz eta Urko, Imanol, Andoni, Inigo, Paula, Naroa, Janire, Maider, Maiana, Lizar eta Jon.



**Carmen
ALZURI ZOZAIA**

2006ko abuztuaren 15ean hil zen
Igantzin, 91 urte zituela.

Gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizi garen artean




**Xabier
TXOPERENA ERRANDONEA
I. URTEURRENA**

Lesakan hil zen 2005eko abuztuaren 13an.

Ahazten dugun hura hiltzen delako soilik maite zaitugulako oroitzen zaitugu bizirik.

Lesakan, 2006ko abuztuaren 13an.

MENDI DUATLOIA



UTZITAKO ARGAZKIA

Mitxel Aginaga, Suitzako Powerman Xtrail proban nagusi izan zen, Zofingen hirian.


Mitxel Aginagak denboraldiko lehen proba irabazi du Suitzan

BH Inverse taldean ari da aurten kirolari narbartearra

ttipi-ttapa

Mitxel Aginaga narbartearrak 2006-07 denboraldiko nazioarteko lehendabiziko mendi Duatloi proba irabazi zuen abuztuaren azken aste hondarrean Suitzako Zofingen hirian, Suitzako Powerman Xtrail proba hain zuzen. Kirolariak, 5 kilometro lasterka mendiz, 30 kilometro mendi bizikletan eta azkeneko 5 kilometroak berriz ere lasterka egin behar izan zituzten. Udakoa baino udazkeneko giroa izan zuten Suitzan, 10 gradutan eta euripean egin behar izan baitzuten ibilbidea.

Mitxel Aginaga talde berrian ari da aurten, BH Inverse taldean. Taldekideek ibilbidea aztertu eta proba lehendabiziko zatian hausten saiatzea erabaki zuten. Baita lortu ere! Lasterka egin be-



harreko lehen zatia akautzerakoan Aginaga eta Angel Martinez errioxarra aitzinetik ziren. Mendi bizikletako lehenbiziko kilometroetan, bigarren izanen zen Zahnd Simon txekiarra eta Wütrich René suitzarra elkartu ziren burukoekin. Bizikletako azken kilometroetan erori egin zen suitzarra eta podiumean sartzeko aukerak galdu zituen. Honela, Angel Martinez errioxarrak osatu zuen podiuma.

Mitxel Aginagaren garai-pena, lasterka egin beharreko azken zatian erabaki zen. Berehala eraso jo zuen eta

gibelean utzi zituen ihesaldiko lagunak. Bakarbakarrik helmugaratu zen eta denboraldi honetan ere kon-tuan hartu beharreko arerioa izanen dela erakutsi zuen narbartearrak.

publizitatea

EUSKALTEGIAN
EUSKARA IKASI ZUBIARTEN

MAILA GUZTETARAKO IKASTARDAK

IRAKASLEENDAKO IKASTARDAK

GURASBENDAKO IKASTARDAK

ZUBIARTE

AGENDA egunez egun

JARDUNALDIAK

ELIZONDO

Irailaren 6tik 9ra historiaurreari buruzko II. Jardunaldiak Jorge Oteiza Etnografia museoa 16:30etik 19:30era. **Irailaren 6an** «Atapuerca mendiko gizon-emakumeak» solasaldia eskainiko du Marina Lozanok. **Irailaren 7an** «Haitzuloetako pinturak Aragoi» solasaldia eskainiko du Vicente Baldellouk. **Irailaren 8an** «Paleolitoko artea: haitzuloetako pinturak Nafarroan» solasaldia eskainiko du Ignacio Barandiaranek. **Irailaren 9an** Urdazubiko Alkerdi eta Berroberria lezeetako pinturak ikusteko bisita gidatua, 10:00etatik 13:00etara. Matrikula 30 euro. Ikasle eta jubilatuek 20 euro. Tel: 948 221089 10:00etatik 13:00ak artio.

SOLASALDIAK

ELIZONDO

Irailaren 18an «Juan de Goyeneche, bere garaiko aurreratua» solasaldia eskainiko du Alfredo Floristan Imizcozek 17:00etan. Egun berean, 18:30ean, «Ziga, Lekaroz eta Gartzain: Errenazimendu garaiko Baztango elizak» solasaldia eskainiko du M^a Josefa Tarifak. **Irailaren 19an** «Herrixkatik Gortera» solasaldia eskainiko du Jose M^a Imizcozek 17:00etan. Egun berean «Baztango jauregiak» solasaldia eskainiko du Pilar Anduezak. **Irailaren 20an** «Juan Bautista Iturralde eta bere fundazioak» solasaldia eskainiko du M^a Concepcion Garciai. Egun berean, 18:30ean «Familiak eta arte sustapena: Elizakoetxea Azpilkuetan, Jauregitarrak Oharizen» solasaldia eskainiko du Ricardo Fernandezek.

ttipi-ttapa • agenda praktikoa

TELEBISTAKO TXOKOA



«JOKOA SOLAS» SAIOAK 9 URTE

Irailaren 18an hasiko da ttipi-ttapa TBren denboraldia

Bertze aunitzek udako oporrak aprobetxatzen zituzten bitartean, telebistako lankideak lanean aritu dira abuztu osoan. Berako Sanestebanetan hasi, Sunbillako Santiburtzioekin segi eta Etxalar eta Arantzako Amabirjinak arte, gure eskualdeko besta gehientsuenen lekuko izan dira ttipi-ttapako kamarak. Abuztuko bestak akaututa, atsedena hartu dute kamara eta kazetariek. Halere, ttipi-ttapa telebistak urte osoan grabatutako erreportaje interesgarrien irudiak ikusteko modua izan da, nahiz langileak oporretan egon. Atsedenaldiraren ondotik, irailaren 18an, programa berriekin hasiko da te-


lebista. Udako nagialdiaren ondotik, kultur, gizarte nahiz kirol arloko hainbat ekitaldi antolatu dira han-hemenka eta horien lekuko izanen da ttipi-ttapa telebista.

«JOKOA SOLAS» SAIOAK

BEDERATZIGARREN DENBORALDIA

Joan den denboraldiko programazioarekin segituko du ttipi-ttapa telebistak. Berak ekoizten dituen saioen artean beterranoena, Aitor Arotzenak aurkezten duen «Jokoa Solas» kirol saioa da, bederatzigarren denboraldian sartua. Aurtan ere, gure eskualdeko kirolari eta kirol taldeen berri zabala izanen da astelehenetako saioan.

DISKAK



Orhiko xoria

Juan Mari Beltran

ELKAR, 2006

«Orhiko xoria», azken urteetan Beltran-ek bere musikari taldearekin aurrera eramandako proiektuaren emaitza da. Soila bezain zintzoa, interpretazioaren naturaltasunak, lan honek barranean gordetzen duen lorategia dastatzeko gonbita luzatzen digu. Beltran-ek zuzendutako proiektu guztietan bezala, hemen ere iturriekiko fidelitasuna eta interpretazioaren sinesgarritasuna azpimarratu behar dira, azken hau Suso Saiz produktore artistikoaren irizpideak katalizatuta: estudioan zuzenean grabatutako lan garbi, atsegin, zuzen eta naturala lortuz, beti moderno baina beti iraunkor eta bizia. Diskoaren erreperorioan, kantu hegariarik topatzen ditugu, zerutiarrak, eta era berean, «Ote jotzea» (aparteko pista batean irudietan ere eskainia) bezalako nekazaritzarako eritimo jolas lurtarrak.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Abuztuaren 18tik 25era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 31,00 € (=)

Zerri gizena
1,320 € kilo. (=)

Zerramak:
0,580 € Kg/bizirik. (+0,010)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,71 (+0,03)
1.koa 3,46 (+0,03)
2.koa 3,26 (+0,03)

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 3,83 (+0,03)
1.koa 3,58 (+0,03)
2.koa 3,35 (+0,03)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 210,00 (=)
idixkoak 240,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 170,00 (=)
idixkoak 195,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,94/3,05
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 8,60 /9,40
8-10 kilokoak: 7,10 /7,80

AGENDA
egunez
egun

JAKIN BEHARREKOAK

Zergatik ez du nere seme-alabak lagunik egiten?

Talde kiroltan edo antzerki klasetan hastea on eginen die

Guztiok, baita itxuraz sinpatikoenak direnek ere, lagunak egiteko edo jendea ezagutzeko estrategia batzuk eta denbora behar ditugu, berte pertsonari hurbildu eta harremanak egin ahal izateko. Arazoak, estrategia hauek ez daukagunean dator, eta lortzeko itxaropenik ez daukagunean.

Herabetasuna, lotsati izatea, ez da heredatzen, hau da, ez da herabe jaiotzen, herabe izaten ikasi egiten da. Haurrak, bere ingurua ikusiz ikasten du bere portaera. Beraz, zuen haurra neurritz kanpo lotsati agertzen bada, galdetu zuen buruei zuek ere hagitz pertsona lotsatiak zareten edo lagunak egitea kostatzen zaizuen. Horrela ez bada, bi gauza gerta daitezke: alde batetik, bere he-



da segurtasun neurri batzuk hartzea, bai joaten garen lekuan, baita etxean ere.

rabetasunari buruz egiten dituzuen komentarioak egokiak ez izatea eta ondorioz, haurra bere baitan oraindik gehiago biltzea edo, guztiz berte aldekoa, zuek hain irekiak eta lagunartekoak izanik, hau-

rrak listoa oso altu ikustea eta maila horretara ailegatzea ezinezkoa dela iruditzea.

ZER EGIN?

• Ez sobera eskatu haurrari. Harremanetan hanka sartzen badu, ez kargu hartu.

Berriz ere saiatzera animatu.

• Berte haurrekin edo anai-arrebekin ez konparatu, honela gutti baloratua eta ez-seguru sentituko baita.


• Erronka ttikiak proposatu. Adibidez, elkarrekin zaudetenean zerbait egitea eskatu (ogia erosi, kontua eskatu...).

• Taldeko kirolen batean apuntatu, bere osasun fisikorako ona izateaz gain, haurren arteko hurbiltzea laguntzen baitu. Horrek, berak ez daukan estrategiak hartzen eta entseiatzen lagunduko dio.

• Antzerki-klasetan apuntatu. Antzerkiak harremanak egiteko modu berriak erakusten dizkio haurrari, paper ezberdinen errepresentazioaren bitartez.

Rakel AMIGO

LIBURUAK



Diamantezko miraria

Joxemari URTEAGA

ELKAR, 2006

Martin Aldiakoa mutikotan aitarik gabe geratu zenean, nekez susmatuko zuen bere bizitzak izango zuen aldaketa: bizimodua irabazi beharrez, etxeak utziko ditu, baita Ondarroa bere sorterrria ere. Beiragile jakintsu batengana joango da, Durangora, baina bidaia luze eta misteriotsuago batean abiatuko da laster, Galizia alderantz. XVIII. mende hasieran kokatutako nobela historiko eder bat idatzi du egileak, irakur-gai gozagarria izateko osagai guztiak dituen:

abentura, misterioa, bidaia, amodioa... Bestalde, Kaiet Bengoetxearen marrazkiek jantzi eta hornitzen dute istorioa. Joxemari Urteagak (Lazkao, 1961) "Diamantezko miraria" gazteentzako nobela kaleratu du, bidaia eta abentura lagun irakurlea entretenitzeko asmoa duena. «*Protagonista irakurlearen parekoa da: ez daki zer gertatuko den, igarri egin nahi du, zantzuak bilatzen ditu*» dio egileak.

BESTAK

ELBETE

Irailaren 13tik 16ra Gurutze Sainduaren bestak. Xehetasunak 23. orrian.

ERATSUN

Irailaren 7tik 10era herriko bestak. Xehetasunak 17. orrian.

OITZ

Irailaren 7tik 10era herriko bestak. Xehetasunak 16. orrian.

SARA

Buruilaren 9tik 13ra herriko bestak. Xehetasunak 28. orrian.

BERA

Irailaren 16 eta 17an Illeketako bestak. Xehetasunak 9. orrian.

LESAKA

Irailaren 8tik 10era Bittiria auzoko bestak. Xehetasunak 10. orrian.

ERAKUSKETAK

URDAZUBI

Uztailaren 14tik irailaren 17ra margo erakusketa monastegian, egunero 11:00etatik 20:00etara. Esteban de Lasen, Christine Etchevers, Pétra Heuschkel, Jean-Pierre Comte, Dominique Duplantier, Jean-Claude Pampouille, Christophe Doucet eta Aitor Mendizabal.

LESAKA

Irailaren 8tik 30era «Lesaka: harria, burdina eta zura» erakusketa Beti Gazten, 18:30etik 20:30era eta igandetan 12:00etatik 14:00etara.

OSPAKIZUNAK

ITUREN

Irailaren 16an Joaldunen Eguna ospatuko da. Xehetasunak 18. orrian.

00-34

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ADOS

• ELIZONDO.
- Apartamentu eta pisuak salgai.
• ARANTZA.
- Borda eta etxeak salgai.
• IGANTZI. Terrenoak salgai.
• LESAKA.
- Pisuak salgai. Sartzeko prest.
• DONEZTEBE.
- Eraikuntza berriko pisuak salgai.
- 2. eskuko pisua garajearekin salgai. Aukera ona.
- 10 minutura: baserria, borda eta lurraekin salgai. Borda ura eta argiarekin.
• BAZTAN.
- Erreformatuak eta erreformatzeko dauden bordak salgai.
• ARIZKUN.
- Nabe industrialen promozioa.
• PROMOZIO BERRIAK:
• IGANTZI. AZKEN pisu eta apartamentuak salgai.
INFORMA ZAITEZ!
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

ANZABAL

Santiago 15 - ELIZONDO
Tfnoa: 948 580804
anzabal@anzabal.com

BAZTAN-BIDASOA

Lur, etxe, baserri, borda eta pisuen salmenta eta alokairuak.

BAZTAN-BIDASOA

Etxebizitzak behar ditugu errentan emateko eta saltzeko.

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BERA. Pisuak salgai Legia karrikan, 105 m², sukaldea, jangela-egongela, 3 logela, 2 bainugela, trasteroa, igogailua eta garaje-marra. % 646 894332.

OITZ. Erabat moldatutako 300 m²ko baserria salgai, 10.000 m²ko lur eremuarekin. Berokuntza zentrala, ura, telefonoa eta hormigoizko bide ona. % 656 415450.



BEASAIN. Erdialdean, Donostiatik 15 km.ra, mobleztatua den estudioa saltzen da. 2 logela, sukaldea eta bainugela. 130.000 euro. % 686 052963.

BERA. Pisuak salgai, Ibaialde 6an. 80 m², trastelekua-ekin. Eguzkitsua, lehenengo pisua. Erreformak egin behar dira. % 948 631417.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

ZUGARRAMURDI. Pisuak errentan ematen da abuztutik aurrera. Egoera onean eta leku lasaian. Konpartitua izan daiteke. % 667 354853.

IRUÑA. Barañainen pisu batetako logela errentan ematen nuke. 250 euro hilean, gastuak aparte. % 647 503569 (19:00etatik aurrera).

BERA. Pisuak errentan emateko, mobleztatua. Osorik edo konpartitzeko. % 686 990087.

BERA. Pisuak errentan ematen nuke, Eztegara pasealekuan. % 659 045501.

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BERA inguruan pisuak errentan hartuko nuke, garajearekin. % 629 971838.

BERA. Pisuak edo logela bat errentan hartuko nuke. % 664 337210.

ETXEBIZITZAK

105 Etxe konpartituak

DONOSTIA. 2006-2007 ikasturterako 2 pertsona behar dira pisua osatzeko Egian. % 626 079259.

IRUÑA. Azpilagaña auzoan pisuak osatzeko neska bat behar da. Unibertsitatetik hurbil eta prezio onean. % 650 599085.

Lan bila zabilta?

LAN ESKAINTZA

LAN ESKAINTZA

LAN ESKAINTZA

LAN ESKAINTZA

LAN ESKAINTZA

LAN ESKAINTZA

LAN ESKAINTZA

LAN ESKAINTZA

LAN ESKAINTZA

Presta zaituzte. Informazio gehiago

948 199 596


BORDA

BORDA

BORDA

BORDA

BORDA




BORDA

BORDA

BORDA

BORDA

BORDA



GARAJEAK/LOKALAK

107 Saldu

LESACA. Garaje eta lokal komertziala saldu edo errentan ematen nuke, Albistur 55ean. % 666 408849.

BERA. Garaje itxia salgai posta bulegoaren azpian. % 948 631119.

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

BAZTAN. 140m²ko nabe industrialak errentan emateko. % 647 773124 (ilunabarretan).

BERA. Garajea errentan emateko Correos ondoan. Aproposa motoak eta bizikletak gordetzeko. % 948 630881.

LURRAK/ORUBEAK 112 Saldu

LEITZA. 1.500 m²ko lur eremu urbanizagarria salgai, Azkue auzo berrian. % 948 510274.

LANA 301 Eskariak

Emakumea orduka lanean aritzeko prest, etxeko lanean. % 670 571478.

Gizona eskaintzen da etxeko konponketak eta bertze edozein lan egiteko. % 948 450285.

Gizona eskaintzen da motozerran, traktorearekin egurrerateratzeko edo alturako lanetan aritzeko. Kamioiko karnetarekin. % 655 746320.

LANA 302 Eskaintzak

IRUN. Neska bat behar da jatetxe batean mahaiak zerbitzatzeko. % 943 633557.

DONEZTEBE. Ostatu batean zerbitzaria behar da aseteburuetarako. % 948 450383.

LESAKA. C eta ABR karnetak dituen txoferra behar da Lesakan. % 606 938271.

Baztango enpresa batek langileak behar ditu. Bidali kurrikuluma. Apdo. 18; 31700 Elizondo.

DONEZTEBE. Jatetxe batean komedorean zerbitzatzeko langilea behar da. Baldintza onak eskaintzen dira. % 617 333015.

BERA. Ansoneta jatetxean, barrako kamareroa behar da. % 948 631155.

Harreragileak behar dira eraikin publikoetako lanpostuak betetzeko. Egunean 7 ordu. % 948 199596.

Peoiak-mantenimendua lanpostu libreak betetzeko. % 948 199596.

Anbulategiak, sukalde, garbiketazuna, plantxa eta garbitokirako langileak behar dira. % 948 199596.

Gidariak. Astean 35 ordu betetzeko. Erakunde publikoak. % 948 199596.

Hautzaindegi publikoetan zaintzaileak eta hezitzaileak behar dira. % 948 199596.

Burlata. Udaletxeak bete behar du: peoiak, garbitzaileak, gidariak, lorazainak, igeltseroak, atezainak, administrari laguntzaileak. % 948 199596.

Garbitzaileak. Jangela, ikastetxetarako. Lanaldi jarraia. % 948 199596.

Ofizialak. Behar dira: pintoreak, mekanikoak, elektrizistak, zurginak, igeltseroak. Kontratu mugagabea. % 948 199596.

Diplomatuak eta osasun teknikariak. Abudo sartzeko Osakidetza. % 948 199596.

Sukalde laguntzaileak. Ospitale eta ikastetxetarako lanpostu libreak. Informa zaituzte. % 948 199596.

MOTORRA 501 Salerosketak

Volkswagen Transporter furgoneta salgai, NA-AV matrikuladuna, 9.000 euro. % 608 170013.

Peugeot 406 familiarra salgai, NA-AT matrikuladuna. 3.000 euro. % 670 471200.

Citroen ZX autoa salgai, NA-AM matrikuladuna, egoera onean. % 677 765 753.

Mitsubishi GDI 4x4 autoa salgai, 2003. urtekoa. 34.000 km. Klimatizatzailea, airbag, ABS, etab... % 620 257082.

MENDAUR MOTOR & 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak: Mitsubishi DID 3-5 ate, Vitara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 3-5 ate, Opel Zafira, Galloper 3-5 ate, Volkswagen Polo, Terrano II 3-5 ate eta Mazda 2. SUZUKIAK ETA VITARAUK AUKERAN

TALLERES SANTESTEBAN & 948 450282 • DONEZTEBE

KOTXE IA BERRIEN SALMENTA (6-10 HILABETEKOAK)

CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR

ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK

EHIZARAKO, MOTOAK, ZALDIK ETA QUAD-AK GARRAIATZEKO... ZURE NEURRIRA EGINDAKO ERREMOLKEAK

ANIMALIAK 601 Emateko

Ardi zakurkumeak oparitzeko. % 637 990197.

ANIMALIAK 602 Salerosketak


Ahuntz nanoak salgai, erditzeko puntuan. % 667 766262.

Oilagor ehiziko bi zakurkume salgai, setter arrazakoak. Ama hagitz ehiztaria da. % 620 036553.

Sabueso arrazako zakurkumeak salgai. % 655 743991.

DENETARIK 701 Galdu-aurkituak

Etxalarko bestatan giltza



bat aurkitu da. % 948 635458.

Txakurra desagertua Leitza jaietan, fox-terrieren nahasketa, txuribeltza. % 675008182.

DENETARIK 702 Salerosketak

Gasezko sukaldea, hozkailua eta labadora salgai, Corbero markakoak. Berriak daude, pisuz aldatzeagatik salgai. % 646 679217.

Garajeko ate zaburaria (abatiblea) salgai, bigarren eskukoa. Atea 234cm zabal eta 280 luze. Egitura osoak 280 luze eta 280 zabalera.

Non ospatu ez dakizula?
Leku berria... 31 Jaiak

948 577 244 - 948 443 342



ARGI AGARA SALABERRIK 19 urte bete ditu abuztuaren 6an. Zorionak Bidasoko sukaldari famatuari, Maddi, Arantxa eta Josetxoren partetik.




JULEN GARCIA LARRALDE Iruñekoak urte 1 bete du uztailaren 28an. Zorionak eta muxuak guraso, Leizta eta Lasarteko familiaren partetik.



UXUE ANZIZAR IRAZOKI beratarrek abuztuaren 1ean 8 urte bete du. Zorionak Nerea, atta eta amaren partetik.



UXUE ANZIZAR IRAZOKI beratarrek abuztuaren 1ean 8 urte bete du. Zorionak eta muxu handi bat Lesaka eta Berako atxi eta amatxien partetik.




MAITETU LEONIS LAZKANO beratarrek abuztuaren 19an. Zorionak senide, guraso eta familiakoen partetik.



IKER ARBURUA LEONIS beratarrek 3 urte bete ditu abuztuaren 2an. Zorionak atautxi-amatxi, eta Xatur eta Juan Antonio osaben partetik.




UXUE ALUSTIZA IPARRAGIRRE arantzarrak 3 urte bete ditu abuztuaren 14an. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.



ESTIBALIZ ARANBILLET beratarrek 26 urte bete ditu uztailaren 31n. Zorionak Unai eta ataxiren partetik.



ANDER MITXELENA DIAZ lesakarrak 2 urte beteko ditu irailaren 9an. Zorionak eta muxu handi bat, ama, Maider eta Naiaren partetik.




MANOLO APEAK abuztuaren 1ean urteak bete zituen. Zorionak lagunaren partetik.




MANOLO APEKA. Zorionak zure 99 urteak betetzeagatik.




IKER ARBURUA LEONIS beratarrek abuztuaren 2an 3 urte bete ditu. Zorionak osaba-izeba eta lehengusu-lehengusinen partetik.



IKER ARBURUA LEONIS-i zorionak aita-ama eta lorizen partetik.




ARITZ LEONIS JIMENEZEK abuztuaren 21ean 3 urte bete ditu. Zorionak Berako familiaren partetik.




IBAN OLAETXE A ETXEBERRIA lesakarrak urtea bete du abuztuaren 8an. Zorionak eta muxu bat gurasoen partetik zure lehen urtebetetzean.




Doneztebeko **JON BELARRA OTEIZAK** abuztuaren 12an 9 urte bete ditu. Aunitz urtez familiaren partetik eta berexiki bere anaiaren partetik.



NEREA ARREGI ETXARTE doneztebeko urtea bete du abuztuaren 19an. Zorionak eta muxu handi bat familia guziaren partetik.



ARITZ FAGOAGA ETULAIN itundarrak 9 urte bete ditu abuztuaren 15ean. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama eta Gorkaren partetik.



ANE MOLINERO BARRETO beratarrek urtea abuztuaren 26an beteko du. Zorionak Eider, Asier eta Jabierren partetik. Muxu handi bat.




ANDREA DE RUEDA GONI doneztebeko 6 urte bete ditu irailaren 5ean. Gure printzesari 6 muxu bere guraso eta bereziki Imanolen partetik.



GURUTZE FAGOAGA ARIZTEGI itundarrak 6 urte bete ditu abuztuaren 31n. Zorionak eta muxu handi bat aita, ama eta Irtxeren partetik.




GURUTZE FAGOAGA ARIZTEGI itundarrak 6 urte bete ditu abuztuaren 31n. Zorionak atautxi eta osaba-izebaren partetik.



UXUE BIURARENA ETXEPAREK urte bat bete du abuztuaren 15ean. Zorionak populis, ahizpa, ama eta aitaren partetik.



UXUE BIURARENA ETXEPAREK urte bat bete du abuztuaren 15ean. Zorionak populis, familiaren partetik.




NEREA ARREGI ETXARTE doneztebeko abuztuaren 19an urtea bete du. Zorionak eta muxu handi bat familia guziaren partetik.



Zorionak **OIER**, gure ebeko txikiak abuztuaren 26an urte bat bete zuelako. Muxu asko Ezkurako famili guziaren partetik.



Doneztebeko **IRATI OIARZABAL SOLABARETAK** 4 urte bete ditu abuztuaren 23an. Zorionak gure printzesari aita, ama eta anaiaren partetik.



ESTITXU BALLARENA TELLETXEAK irailaren 5ean 2 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik.




AIMAR OTXOTEKO lesakarrak 6 urte beteko ditu irailaren 12an. Zorionak atta, ama eta bereziki Ainararen partetik.




EGUZKI ETA ALAITZ IRIGOIEN JUANE donamariarrek 17 eta 5 urte bete dituzte abuztuaren 9 eta 27an. Zorionak famili guziaren partetik.




AINHOA LARRALDE KORTA lesakarrak 6 urte bete ditu irailaren 3an. Zorionak familia guziaren eta bereziki Asiaren partetik.



Irungo **XUNE ZUBIALDE SUSPERREGIK** 5 urte bete ditu abuztuaren 27an. Zorionak panpoxa! Irungo eta Zubietako familiaren partetik.




Arizkongo **MAZLEK** abuztuaren 14an urteak bete zituen. Muxu aunitz telebistako gure modeloari, «La kuadrilla» ren partetik. «Tu xike xabes»




Lesakako **JONE URRIZA OTXOTEKOK** 9 urte bete ditu abuztuaren 26an. Zorionak denon partetik, berexiki Joseba, Ainara, Aimar eta Ane.



AIORA ITURRIA OTXANDORENAK irailaren 13an 2 urte beteko ditu. Aunitz urtez eta muxu handi bat lehengusina Iradiren partetik.



Doneztebeko **PELLO TELLETXE A IGOA** lesakarrak 8 urte bete ditu irailaren 1ean. Zorionak eta 8 muxu Harizpeko familia eta bereziki Ane arrebaren partetik.




Lesakako **PELLO TELLETXE A IGOA** 8 urte bete ditu irailaren 1ean. Aunitz urtez eta muxu handi haundiak Leire, Aitor eta bereziki Orti zure lagunaren partetik. Aupa txapeidun!



IZAR IRIARTE ITURBIDEK irailaren 1ean urte bat bete du. Zorionak Berako eta Igantzioko familiaren partetik.




OIER LARRETE beratarrek 6 urte bete ditu abuztuaren 26an. Aunitz urtez Berako pilotari gazteari, etxekoan partetik.




Elizondoko **MAIALEN BERTIZEK** irailaren 2an 2 urte bete ditu. Familia guziaren partetik zorionak eta muxu handi bat.




MAIALEN BERTIZ elizondorrek 2 urte bete ditu irailaren 2an. Aunitz urtez eta muxu pottolo bat, Julen, aitaxo eta amaboren partetik.




KEMEN ANSUA ARBURA etxalartarrak urtea beteko du irailaren 12an. Zorionak eta muxu handi bat familia guziaren partetik.




Arantzako **INHAR MAIZ FERNANDEZEK** 2 urte bete ditu irailaren 4an. Muxu handi bat familiaren partetik, berexiki amatxi Dionixiren partetik.



Elizondoko **BENAT** eta **OIER ERRO MUJIKA** k 4 urte bete dituzte irailaren 5ean. Aunitz urtez aita, ama eta familia guziaren partetik. Zorionak eta muxu handi bana.



MADDI ARIZTEGI ANTXORDOKI lesakarrak urtea beteko du irailaren 14an. Zorionak kukuxu eta muxu potolo bat familia guziaren partetik.



MADDI ARIZTEGI ANTXORDOKI lesakarrak urtea beteko du irailaren 14an. Zorionak kukuxu eta muxu potolo bat familia guziaren partetik.



vegasa

AMAIYR

Modelo termostato, refrigerador, y horno eléctrico. Extremadamente silencioso, grande, cómodo. Estabilidad excepcional y sistema PROTECTIVA CONFORMAR.

SUSTA ELAZJI

MUNDUS SOPPZIFIDIS JIRAMOLASIS

FRUTAL Y GUSTOSAS ALTERNATIVAS

MEZCLAS:

- Mezcla de frutas frescas y congeladas**
- Mezcla de frutas frescas y congeladas**
- Mezcla de frutas frescas y congeladas**
- Mezcla de frutas frescas y congeladas**

FRUTAS DESGOSTADAS:

- Frutas deshidratadas y congeladas**
- Frutas deshidratadas y congeladas**
- Frutas deshidratadas y congeladas**




euskara



ikasi komunikatu asmatu

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA

• Luruzako Matrikulara: ☎ 948 437196
• Bortzikorikako Bortzikorikako ikaslan
guzuzako ita ordezgarria:
180000000 20000000 ☎ 948 435073

MALERREKAKO EUSKALTEGIA

• Derrastegian
Euzko Eskola Ikaslan: ☎
☎ 948 437533

LEITZALDEKO EUSKALTEGIA

• Leizakako Ikaslan:
☎ 948 430378



ika

Matrikula zaitez
irailaren 29a baino lehen

apuntate a
aprender euskera!